

**Zientzia
tabernetan** / 6



Kaixo

**(L) Aniztasun
festa** / 7



Txistor eguna / 12-13



Oihan
9 urte eta erdi



2,5 urte: agintaren agenteen kontrako delituagatik.

6 urte: hiru lesio delituagatik.

Urte 1: desordena publikoak.

Egoera: 1.060 egun behin-behinean preso.



Adur
8 urte eta erdi



2,5 urte: agintaren agenteen kontrako delituagatik.

6 urte: hiru lesio delituagatik.

Egoera: 1.060 egun behin-behinean preso.



Jokin
8 urte eta erdi



2,5 urte: agintaren agenteen kontrako delituagatik.

6 urte: hiru lesio delituagatik.

Egoera: 1.060 egun behin-behinean preso.



Iñaki
3 urte eta erdi



2,5 urte: agintaren agenteen kontrako delituagatik.

Urte 1: desordena publikoak.

Egoera: 526 egun behin-behinean preso.



Jon Ander
7 urte eta erdi



2,5 urte: agintaren agenteen kontrako delituagatik.

5 urte: hiru lesio delituagatik.

Egoera: 526 egun behin-behinean preso.

SAKANA

Asteartean hiru urte beteko dira Altsasuko auzia gisa ezagutzen dena eragin zuen liskarra izan zela. Altsasu ferietan zen 2016 hartan eta orduko "erresaka" gaur arte iritsi da. Altsasuko auziko hirugarren epaia, zigor irmoak ezartzen dituen, ezagutu genuen herenegun. Ordurako Adurrek, Jokinek eta Oihanek espetxean behin-behinean 1.060 egun pasata zituzten eta Aratzek, Iñakin Jon Anderrek eta Julenek, berriz, 526.

Epaia lehenera irakurketak zer inpresio utzi dizue?

Gure aldetik balorazioa oso negatiboa da. Itxaropena geneukan. Auzitegi Gorenari bi gauza garrantzitsu planteatzen genizkion. Aurrena, egitateak, auzia bere benetako terminoetara eramatea. Atzena, prozesu penaletik kanpo uztea politika-, hedabide- eta bestelako interesak, ez egitateekin ez prozesu penalariekin deus ikustekorik ez dutenak. Epaia irakurritan, bistan da ez dela gertatu. Kontakizun artifizial hori eta kanpoko interes horiek aintzat hartu dira eta, ondorioz, biziki larria den zigor bat dugu. Benetan gertatutakoarekin zerikusirik ez daukana. Auzitegi Gorenean justizia eta proportzio-

"Biziki larria den zigorra dugu"

Espainiako Auzitegi Gorenak urte bat eta erdi eta bederatzi urte eta erdi arteko espetxe zigorrak ezarri zizkien Altsasuko auziko zortzi auzipetuei herenegun. Epaia balorazioa egin digu Amaia Izko Aramendia abokatuak

naltasuna eskatzen genituen. Baina ez ditugu inondik inora ere topatu.

Diskriminazio astungarria kentzea eskatzen zenuten eta hala egin dute.

Horren inguruan bi hausnarketa egin behar dira. Aurrena, zigor zuzenbidearen arauen kontra, Auzitegi Nazionalen astungarri hori ezarri ziguten. Zigor Kodearen kontra ere egin zuten astungarriak; inolako zerikusirik ez zuten astungarri bat. Orain kendu digute, baina hori ezin dugu modu positiboan baloratu. Guztiz soberan zegoen zeribait kendu digute. Atzena

da astungarria kentzeak ere baduela garrantzia: zigorrak pixka bat arintzen ditu. Baina garrantzia orokorragoa da. Auzitegiak astungarri hori aplikatzeko zabalduetako bidea oso arriskutsua zen. Guardia Civil talde bereziki ahula edo diskriminatuta izanzen balitz bezala hartzea eta babes berezi bat behar zuela esaten zen. Bestetik esaten zuen larritu egin behar zirela egitateak baldin eta egileak ideologia zehatz bat edo arrazoi politikoren bat baldin badu. Bai bata, bai bestea lege arloan sekulako astakeria da. Zentzu orokorrean

Gorenak bide hori moztu izanak garrantzia du.

Gai horren inguruan bost epailetatik bik boto partikularra eman dute.

Bi epailek halako iritzia bat modu publikoan ematea guztiz lotuta dago Estatu Espainiarrean dagoen olatu erreakzionarioarekin. Olatu horren barruan Guardia Civil bezalako instituzioak santifikatzen edo ari dira.

Aratzi eta Iñakiri ere delitu lesioak kendu dizkiete.


Lan asko egin behar izan da prozedura honetan eta, behintzat, emaitza batzuk lortu dira. Kasu batzuetan lortu da azterketa sa-

kon bat egitea nori, zer, zein momentu eta zer probaren gainean leporatzen zaion. Hori bi kasu horietan lortu da. Oso nabarmena zelako egitateen artean ez zitzaizela leporatzen sarjentuari baino egindako zauriak, epaiaren arabera beti. Gorenak ikusi eta onartu du.

Gainontzeko seien kasuan ez da lortu delitu bat bera kentzea.

Prozesu honetan, hasiera-hasieratik, asmo eredu garrria eta egitateak handiesteko asmoa daude. Asmo horiek prozesua goitik behera markatu dute, gainontzeko guztiendako, baita Aratz eta Iñakirendako ere. Horrek ondorioak ditu: gainontzeko guztiei egitate guztiak leporatzen zaizkie, modu orokorrean bada ere. Egundoko zigorrak ezartzen dizkie, benetan frogatuztat hartzen diren egitateak izugarri larriak balira bezala. Auzitegi Nazionalako epailek hitz egin dugunean behin eta berririo salatu dugu hori eta Gorenekoekin mantentzen dugu.


"AUZITEGI NAZIONALEKO INSTRUKZIO FASEAK DENA MARKATU DU. EPAI HAU ERE"




EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA


egoki@ventanasegoki.com




Beirak lehorrean jarrita



Etxe pasiboetarako egokia
5 000



Aparteko azala koloreztatua



Isolamendu nukleo indartsua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Guztira

50 eta 8 hilabete



Julen
7 urte eta erdi



2,5 urte: agintzaren agenteen kontrako delituagatik.
5 urte: hiru lesio delituengatik.

Egoera: 526 egun behin-behinean preso.



Aratz
4 urte eta bi hilabete



2,5 urte: agintzaren agenteen kontrako delituagatik.
Urte bat eta 8 hilabete: lesio delitu bategatik.

Egoera: 526 egun behin-behinean preso.



Ainara
Urte bat eta erdi



6 hilabete: mehatxu delitua.
Urte 1: desordena publikoak.

Egoera: Baldintzapean aske.

Zigorrek handitzeko astungarriak gehitzen zizkietela aipatu zenuten abokatuek epaiketen aurretik. Lesio delituan nagusitasun egoeraz abusatzea astungarria mantentzen dute. Beraiek egiten duten egitateen kontakizuna kontutan hartuta, iruditzen zaigu ez dagoela modu egokian aplikatuta. Hala eta guztiz ere mantentzen dute. Lehen esan bezala, eta prozedura honetan askotan salatu dugun moduan, behar bat ikusi dute. Eta behar hori izan da, kosta hala kosta, zigorrak handitzea, sortu duten kontakizunari zigorrak erantzuteko. Horretarako astungarri horiek erabili dituzte teknikoki posible ikusi duten momentuan. Atentatu delitutik astungarri hori kendu dute teknikoki ez zelako posible. Diskriminazioarena berdin, teknikoki astakeria bat zelako. Baina teknikoki aukera ikusi duten guztietan astungarri horiek erabili dituzte zigorrak handitzeko, modu artifizialean bada ere.

Homizidioen pareko zigorrak jarri dituztela esan duzue abokatuek. Bai. Eta esaten dugu ere terrorismoa ez zela frogatzea. Hala eta guztiz ere, terrorismo kalifikazioa aintzat hartuko balute bezala zigortu dituzte. Sartu gaituzten

tranpa izan da hori, kalifikazio artifizial horrekin eta Auzitegi Nazionalaren parte hartzearekin. Lortu dira zenbait gauza, baina emaitzak aurre definituta zeuden. Eta horiek dira, azken finean, ezarri zaizkienak.

Epaia instrukzio fasearen arrastoa du? Haren erresaka da?

Guztiz. Instrukzio fasean bi elementu nabarmentzen genituen. Bata, terrorismo delituaren aplikazio guztiz neurritz eta tokiz kanpoko. Eta, bigarrena, kontakizun guztia sortzen zela kalte-tutakoek eta medioek kontatutakoan, guztiz bideratuta, terrorismo delitua justifikatzeko. Horrek dena markatu du. Epaia hau ere.

Epaia eskutan, zer egin daiteke?

Bi norabide daude. Batetik, oraindik planteatu daitezkeen ezohiko helegiteak daude: Espainiako Konstituzio Auzitegian eta Estraburgoko Auzitegia. Gure ustez, eta familiak iritzi berekoak

"EZ DUGU PROZEDURA JUSTU BAT IZAN ETA AUZIAK ESKATZEN DU AURRERA JARRAITZEA"

dira, auziak eskatzen du aurrera jarritzea. Epaia patxadaz eta ganoraz aztertu beharko dugu eta erabakiak hartu. Gorputzak eskatzen digu. Nik uste egoerak eskatzen duela, hemen ez dugulako prozedura justu bat izan. Oinarrizko eskubideak lapurtu dizkigute. Eta abar. Bigarrena da epaia irmoa dela. Zigorra betetzen hasi behar dute. Espetxe-bidea zabaltzen da. Onurak eskuratze-ko aukera. Horretan ere gure indar eta energia guztiak jarriko ditugu. Zazpi gazte hauek lehenbailehen Altsasun ikusi nahi ditugulako, etxean, familiarrekin. **Epaia irmoa izanda, auzi normal bat balitz, jendeak jakin nahi duena da noiz leudeke zazpiak kalean.**

Epaia irmoa izatean, orain ez dago behin-behineko askatasunean ateratzeko aukerarik. Zigorra betetzen hasi beharko dute. Barruan behin-behinean eman duten denbora zenbatuko diete. Printzipioz, zigorra betetzen ari dira. Orduan lortu behar da ahalik eta azkarren hirugarren graduarekin ateratzea, baldintzapeko askatasunak lortzea eta abar. Noiz? Legeak ezartzen dituen denborak kontuan izanik, ahalik eta azkarren. Hori gure beste borroka bat izanen da.

"Proporzionaltasuna eta bizikidetzaren" aldarrikapena

JAVIER OLLO MARTINEZ ALTSASUKO ALKATEA

Altsasuko auziaren Espainiako Auzitegi Gorenaren epaian kartzela zigorrak jaitsi direla, baina "oraindik ere neurrigabetasuna" ikusten dela adierazi du Javier Olló Martínez Altsasuko alkatea. Espainiako Auzitegi Gorenaren epaian "ez dute diskriminazio ideologikorik" ikusi, eta horregatik "kartzela zigorrak jaitsi" direla azaldu du. Hala ere, hiru hauetan egin bezala "proporzionaltasunaren" aldeko aldarria egin du Altsasuko alkatea.

"Alkate bezala eta udalaren izenean behin eta berriz esan dut ez dugula inpugnazioa eskatzen, baina bai proporzionaltasuna". Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren ondoren "berriz ere proporzionaltasun gabezia" ikus daitekeela azaldu du Olló. Hortaz, nahiz eta auzipetutako Altsasuko

gazteen kartzela zigorrak jaitsi diren, "neurrigabetasunak hor jarraitzen" duela kritikatu du.

"Proporzionaltasuna eta bizikidetzaren" dira hiru urte hauetan, epai bakoitzaren ondoren Altsasuko alkateak errepikatu dituen hitzak. "Giza eskubideen defentsan oinarritutako proporzionaltasuna eta bizikidetzaren aldeko apustua egin da". Olló, Nafarroako Gobernuak "bizikidetzaren aldeko apustua" egin duela eta "berarekin bat" egiten duela azaldu du.

Aurreko legegintzaldian egin bezala, Altsasuko Udalak datorren bozeramailen batzordean "adierazpen bat" onartuko duela aurreratu du Olló, "orain arte egin dugun bezala". Hortaz, orain arte udalak markatu duen "ildo beretik" joango dela esan du Olló.

Auzibidearen hurrengo pausak





Gurasoak atzo Iruñean egindako aurkezpenen. @ALTSASUGURASOAK

"Ez da justiziarik egin, injustizia baieztatu da"

Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske herri plataformaren iritziz, Gorenaren epaiak "injustizia apaindu nahi bazuen, ez dute lortu; hau astakeria eta zentzugabekeria da". Hilaren 26an, 17:00etan, Iruñeko auzitegi parean kontzentratzera deitu dute

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Ostiralero moduan, gaur, atzera ere, makina bat jende Altsasuko udaletxe parean elkartuko da 20:00etan. Altsasuko auzia salatu eta auzipetuei elkartasuna adieraziko diete. Eta, beste behin, bildutako guztiek adi entzunen dituzte Altsasu Gurasoak taldekoek esan dituztenak. Are gehiago oraindik, asteazkenean jendearen beharra izanen zutela jakinarazi zutenean eta atzo ekitaldien egitaraua aurkeztu zutenean.

Izan ere, gurasoek eta Altsasukoak Aske herri plataformako kideek Espainiako Auzitegi Gorenak herenegun emandako epaiaren balorazio publikoa egin zuten: "injustizia, sufrimendua luzatu eta auzi honen salbuespena indartu eta baieztatzen duen erabaki honen aurrean gure samina, haserrea, inpotentzia eta amorrua adierazi nahi ditugu".

Herenegun ezagututako epaian ez terrorismo deliturik ezta ideo-

logia diskriminaziorik ez bada goere "sekulako kartzela zigorrak ezartzen ditu, neurritz kanpo-koak". Euren iritziz epaiarekin "ez da justiziarik egin, injustizia baieztatu da".

Epaiak "muntai horren helburu ilunak mantendu nahi ditu. Auzi honen salbuespen izaeraren atzean, parte hartze politikoa, mediatikoa eta judiziala baitaude". Ezarritako zigorra "oso gogorra eta bidegabea dela" nabarmendu zuten.

Eta gogora ekarri zuten aurreko hiru urteetan "aurrena hedabide muntaia, ondoren politika muntaia eta, azkenik, fiskalaren terrorismo eskaera (50 eta 62 urte arteko eskaerak)" izan dituztela. "Horrela ekin genion Espainiako

**"AUZITEGI
GORENAREN EPAIAK
EZARRITAKO ZIGORRA
OSO GOGORRA ETA
BIDEGABEA DA"**

Auzitegi Nazionalako epaietari, irregulartasunez beteriko epaiaketa, bermerik gabea eta uneoro Guardia Civilak markaturik. Han izandako bi epaietetatik terrorismo delitua baztertuta, "baina aginteari atentatuagatik ordezkatuz eta astungarriak gehituta".

Deialdia

Hiru urtetan "elkartasuna, salaketa, mobilizazioa eta borrokari esker lortu dugu, gizartearekin batera, askatasunarendako eta demokraziarendako oso arriskutsua zen mehatxua gelditzea, alegia, terrorismoa eta diskriminazio ideologikoa aurrekari gisa geratu balira".

Hala ere, bai gurasoek, baita plataformako kideek ere, "3 urte hauetako determinazio eta indar berdinarekin, elkartasuna eta mobilizaziorako deia" egin dute. "Injustiziaren aurrean borrokatzen jarraitzeko oinarritzekoak baitira bai elkartasuna baita mobilizazioa ere.



Deialdi egitaraua

Lastailak 26, larunbata

- Duintasunaren martxa, Altsasutik Iruñera bizikletan.
- 17:00etan Kontzentrazioa, Iruñeko Justizia Auzitegiaren aurreko plazan.

Azaroak 2, larunbata

- Elkartasun musika jaialdia, 20 talde baino gehiago. Altsasuko Burunda frontoian eta kultur guneko zabalgunean.

Azaroak 5, asteartea

- *Presos políticos en la España contemporánea* erakusketa mustuko da lortia kultur gunean. Arco azokan zentsuratutako erakusketa azaro osoan ikusgai izanen da.

Azaroak 8, ostirala

- Altsasuko auziaren zirrikituak aztertzeko mahai-ingurua, lortia kultur gunean.

Azaroak 24, domeka

- Kataluniako eta Euskal Herriko hainbat artistaren elkartasun kontzertua, Burunda frontoian.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Gretaren ostiralak

Iaz hasi eta etengabe ekin dio Greta Thunberg Lurraren iraungitze data atzeratzeari. Jenio txarreko eta motots luze bakarrek Pippi Langstrump dirudi, baina fikziotik ez du batere suediar neskatxak eta bazter batzuk harrotu ditu dagoeneko.

Lurraren azala eta burugainekoa aztoratzen ari zirela gaztigatzen zigun hainbatek duela hamarkada batzuk, baina txeroke aztoratuztat edo hippy inozotzat hartu zituzten. Gero Petra Kelly eta Alemaniako Berdeak iritsi ziren, orain berrogei urte inguru. Txernobil eta Fukushima tarteko mugimendu ekologistak sendotu eta zabaldu ziren, eta unean uneko lorpen tiki eta esanguratsuak lortu zituzten, baina munduaren aginteak muzin egiten zion, eta dena zen teknologiaren goraiapamena, dena garapen zoragarri eta neurrigabekoa.

Horiek horrela, eta aurrerapen guztiz santuaren izenean, jarraituki genuen biribilketa mozgorrari eta alaitsuan.

Eta halako batean Gretaren berri izan zuen munduak. Greta, ordea, ez da aktore, kantari edo show nerabearen beste sorkuntza bat. Pop star bihurtu dute, bai, inondik ere eta ikuskizunaren mundura jauzi egin du, braust.

FIKZIOTIK EZ DU BATERE SUEDIAR NESKATXAK ETA BAZTER BATZUK HARROTU DITU DAGOENKO

Eta ez dugu zientzialari, aditu, intelektual, eleberrri beltzen idazle edo politikari.

Kontua da sare sozialak konkistatu dituela bere histrionismoarekin eta "beti haserre" keinu harekin. Bere burua sobera maite duela ematen du, beste batzuekin lankidetzan jardutea izugarri

kostatzen zaiola dirudi, eta horregatik zalantzak sortzen dira haren egintzaren inguruan.

Eta hala eta guztiz ere, mundu osoko gazte parrasta bat astintzea lortu du, modak moda eta moduak modu ostiral tarte batzuk Lurraren zainketarako dira. Ea ba...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulua bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Zubiak Presoak Etxeratze

SAKANAKO SARE HERRITARRA

Giza-kate baten bitartez, Iruñeko Oblata eta Santa Engrazia zubiak lotu zituzten ehunka nafarrek "presoen korapiloak askatzeko" ekitaldi batean, urriaren 5ean. Presoak etxeratze ezberdinen arteko zubi-lanaren garrantzia azpimarratu zuten. Parte hartu zutenen eskuz esku pasatu zen, zubi batetik bestera, Julio Soto bertsolariak prestatutako mezua. Hona hemen Sotoren testua:

Ez dakizu zehazki noiz, ez dakizu zehazki nola, baina bat batean korapilo bat jaiotzen zaio soka lauari; korapilo bat soka lauari. Elkarrekin zihozten bi herritar, korapiloaren alde banatan

suertatzen dira. Ez dakite seguru zergatik, ez dakite zerk bultzatuta, baina inertziak sokari tiratzera daramatza... Batak ezkerrean, besteak eskubira; tira eta tira, eta nahigabean korapiloa estutzen ari dira... Tira eta tira, norbera bere eskuei begira...

Badirudi dagoeneko ez dagoela atzera bueltarik, ez dagoela korapiloa askatzerik. Baina goiz batez, pauso bat aurrera emanda esnatzen dira biak, eta bata bestea baino pauso luzeagoz bada ere, elkarrengana hurbiltzen hasten dira; urratsez urrats, topo egiten duten arte.

Lehenengo aldiz erakusten dizkiote elkarri esku zaurituak, eta lehengo aldiz begiratzen

elkarri eskuok. Eta bat batean, lurrera jausten da soka, eta sokarekin korapiloa...

Ekitaldiaren bukaeran irakurri zuten idazkiak dioen bezala, Euskal presoek ezartzen zaizkien salbuespen neurrien kontrako kontsentsu politiko, sozial eta sindikal zabal bat dago gure herrian. Eta estatuaren lehenbiziko pausoa hortik etorri behar du. Preso, sende eta lagunak eskubideak sistematikoki urratzen dituen salbuespenezko espetze politikaren amaiera orain eman behar da. Legea bete dezaten besterik ez da. Mugimendu horrek ez luke presoek korapiloa guztiz askatuko, baina gauzatuz gero, pauso gehiago ematen jarraitzeko baldintza hobeak leudeke.

Denok batera presoak etxera!

GUTUNAK

El Salvadorreko injustiziak

ALAZNE PASCUA

Teresa, 40 urte; **Mirna**, 12 urte; **Carmen**, 25 urte; **Maira**, 15 urte; **Marina**, 35 urte; **Evelyn**, **Alba**, **Cinthia**, **Yoana**... 30 urte.

Hauek dira Las17yMás kolektiboko izen batzuk, urte kantitate horretara kondenatutako El Salvadorreko emakumeak. 12 eta 40 urte bitarteko kondenak ospitalez kanpoko erditzeengatik. Denak baliabide urriko emakumeak dira, Estatu heteropatriarkalaren indarkeria sexualak eta sistemikoak jasan duten erasotak. Larrialdi obstetrikoengatik ospitalera jo eta abortatzeengatik salatzen dituzte. Ahul, eta asko

oso gaixorik polizia artean esnatzen dira, hitz zatarrek eta galdetegi desatseginak inguratuta, eskuak lotuta eta hiltzaille modura kriminalizatuta. Epaiketa, eta kondena.

El Salvador da abortua modu absolutuan zigortzen duen herrialdeetako bat, eta beste hainbat herrialdeetan bezala bertan ere berdin du bortxaketarengatik umedun dagoen, umeduna ere umea den, honen osasuna edota heriotza jokoan dagoen, baldintza desegokien ondorioz desiratu gabeko abortua izan duen... Balioan jartzen dena jaio gabe dagoen fetu horren "bizitza" da, umedun dagoen pertsonari haren bizitza bizitzeko eskubide eta aukera guztiak ukatuz. Gaur egun 17 emakume baino gehiagori urratu zaie askatasuna.

Marina, 11 urte; **Kenia**, 6 urte; **Sara**, 7 urte; **Ana**, 6 urte; **Elsy**, 7 urte; **Jackeline**, 7 urte; **Cindy**, 4 urte; **Maria del Rosario**, 9 urte...

Hauek dira El Salvadorren preso jarraitzen duten emakumeen izen batzuk eta kondena betetzeko gelditzen zaizkien urteak. Ezin dugu onartu edozein herrialdeetako emakume eta umedun pertsonen eskubideak urratzen eta kriminalizatzen jarraitzea. Horregatik gaur, bihar eta egunero, benetako justizia eskatzen dugu. Ezin dugu onartu Estatuaren eta Elizaren instituzio heteropatriarkalek gure eskubideak bortxatzen jarraitzea. Horregatik gaur, bihar eta egunero hemen jarraituko dugu, elkarrekin, gure indarrak batzen, guztien askatasuna lortu arte.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Gaur, 19:00etan, Irurtzungo Pikuxarren

Zientzia tragoak hartzeko aukera

Ikerlariak eta teknologoak euren jakintza guztiok ulertzeko modu atseginean emanen dute Zientzia Tabernetan zikloan. Gaur Irurtzungo Pikuxarren, hilaren 18an Lizarragako Bargazpin eta hilaren 24an Olatzagutiko Clinkerren, 19:00etan

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Albiste bat, sari banaketa bat, ebakuntza bat, obra bat, eraikuntza bat, espazio bidaia bat edo dena delakoa dela-eta, modu askotara zientzia hizpide da tabernetan. Halakoetan, barraren ertzean dauden hiztunak harri-dura edota jakin-mina azaltzen dute gehienetan. Askotan hizketatutakoaren atzean dagoena ezin ulertze sentipena du. Nahiz eta garaiak aldatu diren eta telefono mugikorreko bilatzailean bilaketa azkarra eginez argibide gehiago jaso daitezkeen.

Hala ere, ez da gauza bera norberak ez dakien gaiak zerbait irakurtzea edo dakiena azalpenak ematen entzutea. Guaixek bere urteurrenaren harira antolatutako Zientzia Tabernetan ekimenaren bidez ikertzaileak eta sakandarra harremanetan jarri nahi ditu, horretarako, zientziak zehaztasunez hizketatzeko. Beraz, interesa duten sakandarrek zien-

tzia gaietara hurbiltzeko aukera izanen dute.

Arakil, Aranatz eta Burundako taberna banatan egingen da zikloa. Saio bakoitzean arlo anitzetako hiruna ikerlari ariko dira. Nafarroako Unibertsitate Publikoko, Euskal Herriko Unibertsitateko CIDETEC, CIMA, Iruñeko Planetarioa, DBHko zientzia departamentua, Goiener edo Navarrabiomedekoak dira guztiak. Hitza hartuko duten gehienak emakumezkoak, zientzia, teknologia eta ikerkuntza generoarekin haserre ez dagoenaren adierazle.

Hizlariak hainbat gai jarriko dituzte mahai gainean. Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan material plastiko adimenduak, tratamendu mediko berrien ibilbidea eta udazkeneko astroak izanen dira hizketa gaiak. Lizarragako Bargazpin, berriz, landareen hozte sistema, botila zabaldu gabe ardoaren faltsutzea

nola detektatu, euskararen presentzia zientzia eta teknologia arloan. Azkenik, Olatzagutiko Clinker tabernan hizkuntzen ikasketen atzean dagoena, ariketa fisikoen onura eta teknologia berriak diagnostikoan duten garrantzia azalduko dute. Hori guztia giro lasai eta atseginean egingen dute, tabernan. Beraz, zientzia jakituria zabaldu eta zientziarekin gozatu nahi dutenek tabernetara joatea besterik ez dute. Zientziak kontatzeko asko baitu! Eta publikoaren jakin-mina funtsezko osagaia delako Zientzia Tabernetan zikloan.

Estreinakoa da halako ekimen bat Sakanan egiten dena. Zientzia Tabernetan ekimena nazioarteko deialdia da Pint of Science izenburuarekin maiatzean egiten da, esan bezala, zientzia modu atseginean herritarrei hurbiltzeko. Egutegian aldaketa egin eta Sakanara ekarri dugu Zientzia Tabernetan zikloa.



Alaitz Ruiz de Luzuriaga Martinez

Ziordiarra Kimikan doktorea da eta Donostiako CIDETEC-en, ikerketa aplikatuko erakundean, ari da lanean Ruiz de Luzuriaga, material-polimerikoen sailean.

Izenburua: Material plastiko adimendunak, etorkizuneko materialak.

Laburpena: Egunerokoan gehien erabiltzen den materialetako bat polimeroak, plastikoak, dira. Materialok egunero erabiltzen ditugun produktu ugarietan aurki daitezke.

Plastikoeak abantaila asko dituzte hainbat aplikazioetan baina hainbat arazo sor ditzakete: birziklapena, degradazioa... Horregatik, ikerlariak polimero adimentsuak deritzonaren garapenean ari dira lanean. Organismo bizia balitz bezala, material horiek pH, temperatura, argia, eremu elektrikoak, eta abarri erantzuteko gai dira. Hala, materiala eta estimuluaren arabera material "autoreparanteak" deritzonak, bakarrik garbitzen direnak, muskulu artifizialak, leiho adimentsuak eta abar lortuz. Garatutako material plastiko adimenduen ikuspegi orokor bat emanen du ziordiarrek.



Miren Barberia Urteaga

Alkozkoa, Biologian gradua du, genetika eta biologia molekularrean espezializazioa, eta Ikerketa Bio-

medikoa masterra egina du. Gaur egun doktoretza egiten ari da Barberia, biomedikuntza eta medikuntza aplikatua programaren barnean, Nafarroako Unibertsitateko CIMA ikerketa zentroan.

Izenburua: Tratamendu berriak: Ikerketatik pazienteengana.

Laburpena: Nola lortzen da tratamendu berri bat pazienteengana helaraztea? Tratamendu berri bat pazienteengana iristeko jarraitzen den bidea azalduko du Barberiak, esperientzia pertsonal batetik abiatuta (laborategian bizi dutena) eta mugak eta arazoak azalduko ditu.



Miren Karmele Gomez Garmendia

Baztan eta Donostia sorteri ditu eta Publizitate eta Harreman Publikoak ikasketak egin zituen, Komunikazioan trebatuz. Gaur egun Iruñeko Planetarioan ari da lanean.

Izenburua: Zerutik Espaziora.

Laburpena: Udazkeneko zeruan zein astro nabarmentzen diren ikusiko dugu, eta ondoren, gure gazteek espaziora joateko, espazioa "ukitze" aukera batzuk erakutsiko ditu Gomezek.



Goiz guztian zehar izanen dira jarduerak Irurtzango plazan. ITZIAR MATXAIN

(L) Aniztasunaren Festa bigarren eskuko azokan

10:00eta zabalduko ditu ateak azokak Irurtzango plazan. 11:30ean hizkuntza azoka eta hizkuntzen inguruko jolasak izanen dira. 12:30ean Irurtzundar eta arakildar euskaldun berriei aitortza eginen zaie eta ondoren mintzodromoa eginen da

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

Itxipuru taldeak antolatzen duen bigarren eskuko azokak 17 urteko ibilbidea egina du; urteko urtaro bakoitzeko bana. Alfredo Prieto taldekideak azaldu digunez, "beste kontsumo eredu bat bilatzen hasteko" premiak bulkatu zituen. "Urte hauetan kontsumoan eta azokan bertan garapen handia egon da, jaso ditugun proiektu eta produktuetan". Itxipurukoek azken

hiru urteetan azoka aldatu beharra zegoela sumatu zuten eta hala, haiek antolatzen badute ere, edozeinek eraman dezake bere objektu edo arropak eta han saldu, "espazioa jendearena. Gauzak berrerrabiltzearen filosofiari eutsi behar diote postua jartzen dutenek. Batzuk gauzka oparitzen dituzte, besteek saldu. Jendeak ematen dion bizitza du azokak".

Itxipurukoekin batera, besteak beste, postua jarriko dutenak Pikuxar euskal txokokoak izanen dira. Bai haiek, bai Aizpea, Irurtzango euskaltzaleen topagunea, bai Sakanako AEk, Mintzakidek, Sakanako Mankomunitateko Anizartearen

Nanga def?

kulturartekotasun eta Euskara zerbitzuek eta Guaixek bat egin dute eta guztien artean (L) Aniztasun Festa antolatu dute azokaren baitan.

Hizkuntza aniztasuna

Bigarren eskuko azokaren baitan eta Guaixe hedabidearen 25. urteurrena dela eta, (L) Aniztasun Festa ospatuko da. Hainbat erakundek bat egin dute haren antolakuntzan. Aizpeako Nerea Baldak esan digunez, "guk euskararen aldeko ekintzak antolatzen ditugu normalean. Baina gure inguruan badira beste hizkuntza batzuk. Ongi ikusi genuen aniztasun festa antolatzea". Bat egin du berarekin Pikuxarreko kide Zigor Gartzia ere: "Irurtzunen egiten diren hainbat ekimenetan euskarak ere presentzia behar duela uste dugu. (L) Aniztasun Festaren baitan euskarak presentzia inportantea izan behar du. Horregatik, hortxe egin behar dugula uste dugu".

Irurtzunen dauden hizkuntzen erakusleiho txiki bat izanen da hizkuntza azoka. Osasun etxeko arkupeak eta Arakilgo udaletxeak bat egiten duten txoko horren inguruan hainbat irurtzundar izanen dira euren ama-hizkuntzaren berri ematen. Munduan barnako bidai txiki bat egiteko aukera izanen da. Dena Irurtzango plazatik bertatik atera gabe. Hizkuntzak ere jolasteko balio dute eta horren inguruko hainbat jolas izanen dira ere Anizartearen kulturartekotasun zerbitzuak antolatuta.

Igandeko hitzorduak euskaldun irurtzundar eta arakildarrak ere erakarri nahi ditu. Irurtzango plaza arigune bat bihurtu nahi du. Arigunea 2020ko Euskaraldiak berarekin ekarriko duen hitz berria izanen da eta euskaraz aritzeko gunea esan nahi du. Halaokak sortu nahi dira enpresetan,

elkarteetan, administrazioan... Azken finean, Ariguneak Belarripresten eta Aho-bizien bilguneak izanen dira. Eta, esan bezala, Irurtzango plazan Arigunea izanen da eta AEK-k mintzodromoa antolatu du. Euskara dakien jendea ezagutzeko eta norberaren sareak zabaltzeko modu atsegina. Gurasoak lasai asko parte hartzeko aukera izanen dute bitartean, hurrek Aizpeak antolatutako ludotekan ongi pasatzeko aukera izanen baitute. Baina horren guztiaren aurretik heldutan euskara ikasi duten hainbat irurtzundar eta arakildarri aitortza eginen zaie, "euskaldunon euskara hitz egiteko sareak zabaltzeko egindako ahalginatik".

Guaixeren senidetzea

Herriak senidetzen diren moduan hedabideak ere senidetu daitezkeela pentsatzen dugu Guaixen. Horregatik, eta hedabidearen 25. urteurren ekitaldien barruan, Guaixe atzerriko hedabide batekin senidetuko da. Ezedozeinekin, gure moduan hizkuntza gutxitu batean ari den batekin baizik.

Guaixek joan den urtean Nafarroako Ikastolen Elkartek sus-tatzen duen Txikiak Handi manifestuarekin bat egin zuen. Han jasotakoari segida emateko erabaki dugu senidetzea. Eta horren berri emateko (L) Aniztasunaren Festa baino marko egokiagorik ez dagoela iruditu zaigu.

**AZOKAKO DIRUA
MIGRATUTAKO
PERTSONENDAKO
HARRERA IKASTAROA
EGITEKO IZANEN DA**

GOIZERO
10:00-12:00

**EGUN ON
SAKANA**

107.3 FM

beleixe

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

**ONLINE
ENTZUTEKO**

GUAIXE.EUS

irratia@beleixe.eus

ZURE NEGOZIOAREN
ERAKUSLEIHOA,
BELEIXE IRRATIA.
JARRI HARREMANETAN
GUREKIN!

948 567 074

Landa garapenerako proiektuetarako deialdia

Nafarroako Mendialdeko gizarte- eta ekonomia-garapenean lagunduko duten proiektuak finantzatuko ditu Cederna-Garalurrek deialdi horren bidez. Eskaerak azaroaren 25era arte aurkeztu daitezke

SAKANA

Landa Garapenerako Programa 2014-2020 toki-garapenerako proiektuak laguntzeko diru laguntzen deialdia egin du Cederna-Garalurrek. Deialdia hori laugarrena da eta 647.181,86 euroko poltsa du. Deialdiak Nafarroako Mendialdeko gizarte- eta ekonomia-garapenean lagunduko duten proiektuak finantzatuko ditu, zerbitzu publikoak eta enpresak sortuz eta daudenak finkatuz.

Garalurren diru laguntzak jasotzeko zehaztutako ardatzekin lotutako proiektuak izan behar dute: herritarrak tokian-tokian mantendu eta finkatu;



Hondakinak biltzen Irurtzunen. ARTXIBOA

lehen sektorea eta basogintza; natura-baliabideen ustiapen jasangarria; zerbitzuak garatu eta ondareari balioa eman; eta enpresak finkatzen eta enplegua sortzen lagundu. Ekoizpenekoak diren proiektuek % 30erainoko finantziazioa izanen dute (horien helburu nagusia ekonomia-jardura da), eta ekoizpenekoak ez diren proiektuek % 70erainokoa. Azken inbertsio horiek gizarteragin handia dute, nahiz eta mozkin ekonomikorik sortu ez. Nolanahi ere, laguntzaren muga 50.000 eurokoa izanen da.

Proiektu-deialdi hori Cederna-Garalurrek Elkartearen Tokiko Garapen Parte-hartzailearen

Estrategia (TGPE), 2014-2020 ize-neko estrategian txertatzen da, eta Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren baterako finantziazioa du, 'LGENF' landa-garapenerako funtsen bitartez. 2016az geroztik, programa horrek 4,8 milioitik gorako inbertsioa egin du toki-garapenerako 100 proiektu publiko eta pribatutan.

Aurreko deialdian Sakanako bost proiektu diru lagundu zituen Cederna-Garalurrek: hondakin biltzea eraginkorrago egiteko Sakanako Mankomunitateak informatika sistema ezartzeko 47.906,81 euro, Uharteko Arakilgo mendi lasterketetan aritzen direnendako eta Itsesiko kirol gunean kokatuko den trail estazioa egiteko 40.181,68 euro, Altsasuko Udalaren etxebiteen aterpe berria bidezainena izandako etxe batean egonen da eta haren ekipamendurako 43.352 euro jaso ditu. Bestetik bi ekimen pribatuk ere laguntza jaso zuten. Batetik, Lakuntzan turismo-aterpea egiteko 50.000 euro eta, bestetik, Etxarri Aranazko enpresa bati 48.492 euro bi erregaiekin lotutako sistema bat egokitzeko.



Gazteak kultur etxeko terrazan. ARTXIBOA

Komunikazioari buruzko ikastaroa Etxarri

Hilaren 23an eta 27an izanen dira, 17:00etatik 20:00etara, kultur etxean Euskarabidearen eskutik

ETXARRI ARANATZ

Euskarazko kultura digitalari bultzada eman eta ezagutarazteko asmoz jarri zuen martxan Euskarabideak Sarean Euskaraz egitasmoa duela bi urte. Berezi ki 12 urtetik gorako gazteengan pentsatuta osatu dute programa. "Gazteek Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) asko erabiltzen dituztenez, protagonismo handia emanen zaie beraien, baina euskarazko kultura digitalera hurbiltzeko edo horretan sakontzeko interesa duen edozein herritarrek parte hartzeko pentsatuak izan da tailerra".

Hirugarren honetan programak doako 20 ikastaro eramanen ditu Nafarroako 17 herritara lastailean eta azaroan. Horieta ko bat Etxarri Aranatz da: Zergatik komunikatzen dugu gaizki? iAmetza enpresako kideek emanen dute ikastaroa. "Blogetan eta, oro har, sare sozialetan komunikatzeko kontuan hartu beharreko teknikak eta gakoak lantzeko tailerra: bloga sortu bai, baina nola erabili, nola idatzi edota nori zuzendu. Era berean, euskaraz eta era librean lan daitezkeen bideak ezagutzeko balioko du ikastaroak".

Izen ematea hilaren 21era arte www.sareaneuskaraz.eus-en, doan. 20 plaza daude.

Txinatarrak hondakin biltzetan interesa

Eredu mistoa eta atez atekoa nola egiten diren ezagutzeko aukera izan zuten 16 txinatarrek osatutako delegazio batek. Sakanako Mankomunitateko hondakin biltzea zerbitzuko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkariak eman zizkieten azalpenak

SASKANA

Astelehenetik asteazkenara Bilbok ISWA 2019 mundu-batzarra hartu zuen. Hondakinaren tratamenduan, birziklatzean eta ekonomian adituak diren unibertsitateko eta industriako 70 herrialdetako 1.200 aditu elkartu ziren. Han hondakinaren kudeaketan eta ingurumen-jasangarritasuneko politikan dauden azken joerak eta teknologiak aztertu zituzten. Hitzordu hori baliatuta, Txinako delegazioa osatzen duen 16 pertsonako taldeak bidaia aurreratu du, estatuan hainbat esperientzia ezagutzeko. Bio-hondakinaren tratamendu biologikoko kudeaketa deszentralizatu eta lokala

ezagutu nahi zuten politikari, akademiko eta teknikari txinatarrek Sakanan ostiralean izan ziren.



Txinatarrak bisitan. MANK

tarrek Sakanan ostiralean izan ziren.

Sakanako Mankomunitatearen hondakinak biltzeko sistema mistoa eta atez atekoa ezagutu nahi zituzten txinatarrek. Mankomunitateko hondakin teknikari Olatz Garde Mazkiaranek eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko bi ordezkariak eman zizkieten azalpenak. Lizarragabengoan auzo-konpostagailuak eta ekarpen gunea ikusteko aukera izan zuten. Etxarri Aranatz, berriz, zintzilarioak. Azalpenak jaso ondoren ordezkariak txinatarreko kideek esan zuten Sakanan lortutako emaitzak "eredugarriak" direla.

La Vasconavarra Alemaniako elikagai azoka batean

Alemaniako Kolonia hiriak larunbatetik asteazkenara Anuga azoka hartu zuen, elikagai eta edarien munduko azokarik handiena. Hango erakusmahaietan, kongresuetan, seminarioetan eta ekitaldietan egungo eta etorkizuneko joeren berri eman zen. 100. edizioa zuen aurten azokak eta 7.600 enpresa bildu zituen bere baitan.

Azokan euren erakusmahaiak jarri zutenen artean bederatzi enpresa nafar zeuden eta haietako bat Quesos La Vasconavarra olaztiarra zen. Olatzagutiko enpresak Kolonian aurkeztuko dituen artean daude artisau eran ondutako gazta tradizionalak, nazioarteko merkatuetara bideratutako gazta tako eta xerrek, bertako eta atzerriko gazten dadoak eta gastronomiarako gazta-birringuen aukera berriak, italiar erako gazta zatien gama berria, jatorri izendapen berriak, frantziar erara prestatutako ahuntz gazta eta hamabi hilabetez ondutako gazta berria.

Kontzejuaren pisuko eskailera, auzolanean

Elkarteko gainera kontzejuaren pisura daramaten eskailerak auzolanean egin zituzten larunbatean. Pisuak ez du ezta paretarik ere, baina Unanuko Kontzejuaren asmoa da etorkizunean etxebizitza egokitzea eta hura alokatzea

UNANU

Auzolanerako hartu zuten unanuarrek larunbat goiza. Unenuarrek urtean bitan egiten dituzte auzolanak. Etxe bakoitzeko pertsona batek joan behar du. Baina etxeakoak adinekoak badira ez dute joan beharrik. Batzuk herria txukuntzen aritu ziren eta besteak Unanuko Kontzejuak elkartearen gainean duen pisurako eskailerak egiten aritu ziren.

Jesus Mari Balda Mercero kontzeju-buruak azaldu digunez, "Denok bat elkarrekin 1998an su hartu zuen. Porlana zuen beheko solairuak libratu zuen, baina gainontzekoa erabat kixkali zen". Lanen ondoren beheko solairuan elkartearen taberna eta jangela eta bigarrenean sukaldia eta jangela daude. "Bigarren solairua egin gabe dago. Porlana bota zen, baina ez du ezta paretarik ere". Eskaileren zergatiaz galdetuta, Baldak esan digu kontzejuaren asmoa bigarren solairuan "noiz-bait" etxebizitza bat egitea dela. "Horretarako, diru-laguntzak behar dira. Han bizitzeko lehen-tasuna herrira bizitzera etorriko liratekeenak lukete".

Unanuko Kontzejuak badu beste etxe bat, maistruban etxea zena. Hura 2017an konpondu eta alokatu zuen. Kontzejuaren beste diru sarreretako bat baso



Unanuarrek auzolanean lanean.

aprobetxamenduak dira. Joan den urtean egindako deialdi bat hutsik gelditu da eta aurten lortu dute saltzea.

Herrian egin den azken inbertsioa argiteria publikoan izan da negu-udaberrian. Aurreko bonbilak LED argiengatik ordezkatu ziren. Kontzejuak 19.635,59 euroko inbertsioa egin zuen (proiektu gastuak eta beste kanpo). Rios Renovables enpresak egin zituen lanak. Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko funtseko 22.663,17 euroak baliatu zituen zorra pagatzeko.

Elkarrekin

Denok bat elkarrekin joan den mendeko 60eko hamarkada akaberan edo sortu zen. 1991n goitik behera konpondu zuten. 1998ko otsailko sutesaren ondoren enpresa batek egitura egin zuen eta gainerako lanak auzolanean egin zituzten unanuarrek, larunbatero lanera joanez, Aste Santua barne. Konponketaren zati bat aseguruak pagatu zuen, beste zatia elkartekideek jarri zuten. Festetako elkarrekin zabalik nahi zuten eta beheko solairua taberna moduan zabaltu zuten.



Ikerketa lana baloratzen. Udalak 700 euroko beste beka deialdia egiten du.

Historia-memoriako ikerketa-bekako lana udalaren esku

Gerra-ondorengo "haur eta gazteen aisialdiaren begirada feminista" jaso du lanak

ALTSASU

Altsasuko Udaleko, Nafarroako Memoriaren Institutuko eta Altsasu Institutuko ordezkariak hilaren 4an oniritzia eman ondoren, udalak bere egin du Kitz Mendiola Barandallak egindako ikerketa: "Jolasa eta aisialdiaren begirada feminista haur eta gazteengan gerra zibilean Sakanan". Udalak herriko eta ibarreko historia-memoria ikertzeko emandako aurreneko bekaren emaitza da lan hori. Javier Olló Martínez alkateak jakinarazi digunez, Mendiolarekin aztertuko dute lanari zer zabalkunde eman.

Historia ikasketaren barruan, Gogoan proiektuaren bidez, Altsasu institutuko DBH 4ko ikasleek 300 elkarrizketa baino gehiago egin zituzten 9 ikasturtetan. 1936ko estatu kolpeari eta ondorengo garaiei buruz galdetu zieten ikasleek ibarreko adinduei. Institutuak eta Altsasuko Udalak hitzarmena sinatu zuten eta azken horrek material hori guztia jaso zuen. Gainera, "artxibo bizia" izan dadin ikerketa-beka deialdia egitea adostu zuten. Aurreneko ikerketa-beka Mendiolak egin du eta udalak aurki bigarren deialdia egiten du.

Ahozko eta materiagabea den ondarea jasoko da

Udalak eta Labrit multimedia enpresak akordioa sinatu dute azken horrek 46 altsasuar elkarrizketatu ditzan

ALTSASU

Nafarroako Unibertsitate Publiko Filologiako eta Hizkuntzaren Didaktikako Saila Nafarroako Ahozko eta Materiagabea den Ondarearen Artxiboa proiektua egiten ari da (www.navarchivo.

com/eu). Horretarako herriri elkarrizketa etnoantropologikoak egiten ari dira "XX. mendeko memoria" gordetzen duten pertsonen. Elkarrizketak egiteaz Labrit Multimedia enpresa arduratzen da.

Altsasuko Udalak egitasmoarekin bat egitea erabaki du eta horretarako aipatu enpresarekin hitzarmena sinatu du. Horren arabera, udalak enpresari elkarrizketatu daitezkeen 46 altsasuarren zerrenda pasako dio. Aukeraketa udalaren Historia-memoria eta Elkarbizitza Batzordeak enpresarekin batera egiten du. Lana egiteko, gainera, 13.294 euro emanen dizkio udalak (BEZ kanpo). Elkarrizketa horiek urtea despeditzerako eginak izan beharko ditu enpresak.

FERIETAN HAMAIKETAKOAK
ETA MENU BEREZIA

IRU BIDE
RESTAURANTE JATETXEA

948 468 876 | Altsasu

Ekintzailtza soziala eta kooperatiboa sustatzen

Ekonomia Sozial Eraldatzailean prestakuntza, esperientzia esanguratsuak ezagutu eta norberaren proiektuari forma emateko laguntza emanen du programak. Hilaren 16ra arte eman daiteke izena <http://koopfabrika.eus/sakana/> web gunean

SAKANA

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Iker Manterolak azaldu digunez, "2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoaren berrazterketa prozesuan agerian gelditu zen ibarrak hainbat erronka sozioekonomikoa dituela: zaintzak eta, bereziki, zahartzaroari dagozkionak, klima aldaketa, digitalizazioa eta abar". Horiei erantzuteko eta "komunitatearen jarraikortasuna bermatzeko" ekintzailtza soziala eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) sustatzeko programa martxan jarriko dutela jakinarazi digu Manterolak.

Haren bidez ESEri buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa emanen da eta, aldi berean, gaur egun martxan dauden proiektuak ezagutzeko aukera emanen du. "Beste herri eta eskualdeetan garatzen ari diren proiektuak ezagutu eta Sakanan etorkizunera begira ditugun erronkei aurre egiteko tresnak geurega-



Sakanako garapen gunean, Utzaganen, izanen dira saioak. ARTXIBOA

SGAK ETA OLATUKOOP-EK ANTOLATU DUTE, GOBERNUAREN FINANTZAZIOAREKIN

natzen hasteko". Saio teoriko-praktikoekin batera, sustapen saioak izanen dira, eta ESErekin lotura izan dezaketen gaiak landuko dituzte. "Gai batzuk zehaztu badira ere, intereseko gaien arabera egokituko da".



Garalurreko zuzendaritzako kideak. UTZITAKOIA

Cederna-Garalurrek zuzendaritza berri du

Patxiku Irisarri Elizagoien da elkarteko presidente berria. Zuzendaritza batzorde berrian 5 sakandar daude

SAKANA

Nafarroako Mendialdearen garapenerako elkarteak, Cederna-Garalurrek, zuzendaritza berria aukeratu zuen irailaren 25ean. Bi hautagai aurkeztu ziren lehendakariak: Patxiku Irisarri Elizagoien (Etxalar, EH Bildu) eta Isabel Sanchez Alfaro (Esterribar, Olloki taldea). Aurrenak 22 boto jaso zituen eta atzenak 6. Beraz, Etxalarreko zinegotzia da Garalurren lehendakari berria. Lehendakari-ordea Mikel Zabaleta Aramendia (EH Bildu) Leitzako alkatea izanen da (aldeko 26 boto eta 2 abstentzio). Gara-

lurreko idazkari ardurak Ander Magallonek hartu du, Zubiriko Etxeko mikrokooperatibako bazkidea (aldeko 28 boto). Azkenik, momentuz, diruzain kargua bete gabe dago.

Garalurren zuzendaritza batzordeak 34 kide ditu, bost sakandar: David Oroz Alonso Mankeko lehendakaria, Oihana Olaberria Jaka Arakilgo alkatea eta Javier Olló Martínez, Altsasuko alkatea. Sektore pribatuaren ordezkarien artean daude Javier Artetxe (Sakanako Enpresarien Elkarte) eta Iker Manterola (Sakanako Garapen Agentzia).

Egitaraua

Saioak 16:00etatik 20:00etara dira.

Saio-teoriko praktikoak Lastailak 17, osteguna

- Zer da Ekonomia Sozial Eraldatzailea? Nola txertatu tokiko garapenean?
- Bizigarritasuna eta bideragarritasuna ekimen kolektibo eta komunitarioetan.

Lastailak 24, osteguna

- Kooperatibagintza, kooperatiba-motak eta interkooperazioa.
- Lan eta zerga aspektuak.

Lastailak 31, osteguna

- Talde-kudeaketa, bizigarritasuna (zaintza-denbora...)

- Adierazle-sistema, balantze soziala.

Azaroak 7, osteguna

- Harremanak, sare-komunitatea eta komunitate marketinga.

Sustapen saioak

Azaroak 7, osteguna

Zaintzaren krisia atarian daukagun erronka da, gaur egun familia egiturekin edo kontzertazio publiko-pribatuarekin erantzuten dena, muga handiekin. Zein paper joka dezake kooperatibismoak zaintzen paradigma komunitario bat sortzeko garaian. Zentrala den gaiari eskualdetik eta ikuspegi komunitariotik helduko diote.

Azaroak 14, osteguna

16:00etatik 20:00etara Etxebizitza kooperatibo eta komunitarioen ikuspegitik abiatuta, lurralde-sare kooperatiboen sorrerarako gakoak eta zerbitzuen eta beharren kooperatibizazioa landuko dugu: tokiko klausula sozialak, etxebizitza kooperatiboak eta herri kooperatibak.

Azaroak 21, osteguna

16:00etatik 20:00etara itxiera jardunaldia. Formazio saioetan ikasitakoa bateratu eta Sakanan etorkizunera begira dituen erronka nagusiak landuko dituzte.

Irigoierek Sodenako zuzendari gerentea izaten segituko du

Pilar Irigoien Ostizak Sodena, Nafarroako Garapenerako Elkarte, enpresa publikoaren zuzendari-gerente izaten segituko du. Sodenako administrazio kontseiluak hilabeteko aurreneko egunean erabaki zuen Manuel Arlaban Esparza elkarteko administratzailea izendatzea eta, hark, Irigoien karguan berretsi zuen.

2015eko abenduaren 11n izendatu zuten ardurak horretarako Irigoien urdiaindarrak. Bere egitekoa Sodenan, Nafarroako Garapenerako Elkarte enpresa publikoan, inbertsioerakartzea eta, lurralde estrategiaren bidez garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Bake epaile eta ordezkoren bila Irañetan eta Arruazun

Irañetako eta Arruazuko Udalek jakinarazi dutenez, euren herrietako bake epaile titularren eta haren ordezkoren karguak hutsik gelditu dira. Ardurak horiek betetzeko bai udal batek zein besteak deialdi bana egin dute. Beraz, bake epaile eta ordezkoren izan nahi duten irintarrek eta arbazuarek udalen bulegoan aurkez ditzakete euren eskaerak. Asteazkenaz geroztik 15 egun baldioduneko epea zabaldu da eskaerak aurkezteko Irañetan eta Arruazun. Legeak ezarritako baldintzak bete behar dituzte ardurak hartu nahi dutenek. Eskaerarik ez balego, udalen Osoko Bilkurak nahi dituenak hautatuko ditu karguak betetzeko.

Sakana "guztion artean" eraikitzeko plana

Sakanako Mankomunitateak Plan Estrategikoaren prozesu parte hartzailea aurkeztu zuen atzo. Proiektu honekin "bailara eraikitzen" ari direla adierazi zuen David Oroz Mankomunitateko presidentek. Urrian parte hartzeko lau saio egingen dituzte

LAKUNTZA - SAKANA

"Egiten ari garenen lehenengo urratsa da hau". Eta egiten ari direna "bailara" da. David Oroz Sakanako Mankomunitateko presidentek Mankomunitatearen plan estrategikoa aurkeztu zuen asteazkenean, Mankomunitateko langile eta Sakanako udaleko ordezkari eta eragileen aurrean. Gainera, Plan Estrategia aurrera eramaten laguntzen ari diren EMUN-eko langileak ere zeuden aurkezpenean. Udal, eragile eta herritarren plana garatzeko prozesu parte hartzailean parte hartzeko deia luzatu zuen Orozek. Urriaren 17an, 22an, 23an eta 24an izanen dira.



Sakanako Mankomunitateko teknikariak eta udaleko ordezkari eta eragileak.

Sakana barrura begiratzen duen, baina, bereziki, "kanpora" begiratuko duen Plan Estrategikoa prestatu du Mankomunitateak, David Orozek azaldu bezala: "Bailara eraikitzen ari gara". Hortaz, aurkeztu duten planaren oinarria "parte hartzea" da.

Lehenengo parte hartze saioa Mankomunitateko langileek egin zuten, eta "esperientzia positiboa" izan zela esan du Orozek. "Saio bereziak prestatzen dituzte, entretengarriak eta oso emankorrak". EMUN-ek ematen ditu saioak. Plan Estrategikoaren parte hartze prozesuaren barruan lau saio egingo dituzte: lehenengo saioa urriaren 17an, ostegunean, izanen da, 18:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Sakanako udaleko ordezkariak eta eragileak deituta daude: euskararen eragileak, kiroltakoak, garapen agentziarekin elkarlanean aritzen direnak eta abar. Urriaren 22an, asteartea, Lakuntzako kultur etxean, 18:00etan, udal ordezkariendako eta eragileendako bigarren saioa izango da. Hirugarren eta laugarren saioak, aldiz, "herritarrendako"

izanen da. Urriaren 23an eta 24an izanen dira saioak, 18:00etan, Irurtzongo eta Altsasuko kultur etxeetan, hurrenez hurren.

Erreferentzia

Sakanako Mankomunitatea bailara baten kudeaketa erreferentzia dela azaldu du Orozek. "Batzuetan kanpotik etorri behar dira barruan duguna baloratzeke". Plan Estrategikoarekin lanean aspaldi hasi ziren, baina lehenengo lanak "barrura begira" egin dituzte. "Mankomunitatearen historia osatu dugu, izan ere, langileen artean badira 30 urte daramatenak, eta azkena duela bi hilabete sartu dena".

EMUN-ek gidatutako parte hartze saioetan AMIA (aukera, mehatxu, indargune eta ahulezia) aztertu dute, "baina ez zerbitzu bakoitzarena, baizik eta orokorrean Mankomunitateari begira". Lortutako emaitza hauekin "ikuspegi orokorra" osatu nahi dugu.

Parte hartze saioetan ematen diren emaitzekin "barrura" eramango dituzte ere eta Mankomunitatean sortu den hausnarketa taldeak landuko ditu. Bost urteetan lan egitekoa da plana.

Herriak Euskaraldian izena emateko deia

Dagoeneko herrietako batzordeek <https://euskaraldia.eus/herriak-2/> web gunean izena eman dezakete. Belarriprest oinarriko rolaekin batera Ahobizi eta Ariguneak izanen dira

SAKANA

Nafarroako hainbat herrietan lanean ibilitako Euskaraldiko batzordekideak, Euskarabideko kideak, Nafarroako Euskalgintzako partaideak, Euskaltzaleen Topaguneko kideak eta 2019-2020ko ariketan parte hartuko duten hainbat entitate elkartu ziren Iruñeko Katakarak-en irailaren 30ean, Euskaraldiaren bigarren edizioaren Nafarroako jendaurreko aurkezpenean. Han ezagutarazi zituzten Euskaraldiak 2019-2020ko edizioan dakartzan berrikuntzak.

Euskararen erabilera handitzeko ariketa sozialaren oinarria Belarriprestak izanen dira. Haiek

euskara ulertzen dutela ziurtatzen duten pertsonak dira eta euskal hitzunei lasai eta eroso euskaraz hitzegiteko sare zabala eskaintzen diete. Ahobiziek edonon eta edozeinekin euskaraz aritzeko jarraera hartuko dute berriro. Baina bi rol horiekin batera Euskaraldia berriak Ariguneak ekarriko ditu. Ariguneak entitateen baitan euskaraz eroso aritzeko guneak. Modu kolektiboan ariketa soziala burutzeko erraztasunak emanen dituzte izena ematen duten entitateek, hain zuzen ere, barne zein kanpo Ariguneak identifikatuz eta sortuz. Administrazioan, enpresetan eta elkarteetan sor daitezke Arigu-

neak. Batzuek entitatearen barrura begira euskara erabiliko dute, eta besteek kanpora begira. Hori entitate bakoitzean erabakiko dute.

Euskaraldiaren bigarren edizioaren beste berritasun bat da 11 egun beharrean 15 egunez egingen dela ariketa soziala, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Herrietako batzordeek izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Oraingoan ere Euskaltzaleen Topaguneak eta Nafarroako Gobernuak ekimena sustatzeko duten hitzarmena sinatu dute. Azaroaren 23an Iruñean Euskaraldia gizarteratzeko ekitaldia ospatuko da, 11:00etatik 13:30era.



Igandean txistorra nola egiten den ikusteko eta ikasteko aukera izanen da. ARTXIBOA

Txistorraren inguruko jarduera ekonomikoa duen herria

Hestekia ekoizten duten hiru enpresa eta harategi bat daude. Euskal txerria hazten duen ekimen bat ere bada

ARBIZU

Arbizuko ekonomiaren sektore-garrantzitsu bat txistorraren eta txerrikiaren inguruan aritzen da. Hiru enpresek ekoizten dute txistorra. Gaur egun Embutidos Arbizu dena 1948an herrian atekak zabaldu zituen harategi baten bilakaera da. Flores Hestekiak enpresak ere Arbizun XX. mende erdialdean ireki zuten harategi batean du jatorria. Azkenik, Laket Artesanos enpresak ere familiako harategian du sorburua, 1915ean Altsasun sortutako batena hain zuzen ere.

Hiru lantegietan 21 langile ari dira lanean. Urtero 700.000 kilo txistor egiten dituzte gutxi gorabehera. Baina txerriki, piperrautsa, gatz, baratxuriak eta estalkia diren txistorrez aparte, hiru enpresa horiek produktu gehiago ekoizten dituzte. Flores-tarrek txorizoak (lehorrak eta freskoak) ere egiten dituzte. Ar-

bizu enpresatik, berriz, txistorra ekologikoa, txorizo, hirugiharra, pateak eta txorizo egosia ateratzen dira. Laketekoek txistorra eta prestatutako hainbat jaki ekoizten dituzte.

Arbizun egindako txistorrak merkatu zabala dute: Euskal Herria, Suedia, Norvegia, Ingalaterra, Belgika, Danimarka, Holanda, Frantzia, Espainia, Hungaria, Filipinak, Vietnam, Laos, Txile, Hong Kong, Dubai, Dominikar Errepublika... Ekoizpenaren zati handi bat Euskal Herrian gelditzen da, nahiz eta atzerriak tokia duen.

Bestetik, sektoreari ekarpena egiten dio ere Razkin harategiak, dendatik txistorrak eta beste salduz. Eta esparrua lehengaiaren ekoizpena zabaldu da azken urteetan. Izan ere, Aitor Mendoza eta Oihane Rodriguez euskal txerriki hazten hasi dirak.

Txistorraren hitzordua jarria dago iganderako

Txistor Egunaren 11. edizioa hartuko du Arbizuk igandean. Pintxo eta literatur lehiaketekin batera, azoka, musika eta beste iragarri ditu udalak.

ARBIZU

Etxarri Aranazko eta Altsasuko ferien artean? Arbizuko Txistor Eguna. Aurreko hamar urteetan ez du hutsik egin eta aurten ere hala izanen da. Arbizuko Udalak iganderako dena prest du. Jon Ander Mendinueta Iribarren zinegotzia, Txistor Eguneko arduradunak, esan digunez, "egunak indarra hartu du. Izena hartzen ari da. Jendea asko etortzen da eta harro gaude halako festa bat herrian izateagatik".

Txistorrari eskainitako eguna izanik, hura dastatzeko aukera izanen da. Embutidos Arbizu, Flores Hestekiak eta Laket Artesanos enpresek emandako 120 kilo txistor pintxotan prestatuko dute. "Aurki dena bukatzen da. Urtero dena bukatzen da. Jendeak dexente jaten du", jakinarazi digu Mendinuetak. Plazatik pasatzen direnak han izanen dituzte txistorra pintxoa eta ardo basoa bi eurotan eskuragai. Jakina, plaza parean egonen den azokan txistorra erosteko aukera ere izanen da.

Azoka

Aurten karrika Nagusia berri-tzeak ekarri du espazio zabalagoa izatea Txistor Eguna antolatzeko. Hori ikusita, udalak azoka indartzen ahalegin berezia egin du. "Gauza desberdinekin zortzi postu gehiago sartu ditugu aurten". Guztira 47 salmahai izanen dira bisitarien zain karrikan. Gehienek jatekoak salduko dituzte (txerriki, txokolata, gazta, pastelak, marmeladak, barazkiak, pastak, arrautzak...) baina oinetakoak, bitxiak, liburuak, apainketa elementuak, saskiak, zurezko gauzak, saskiak, artilezko artikuluak edota jantziak erosteko aukera ere izanen du bisitariak. Saltzaileen bederatzirak dira. Udalak "propio" tokia egin die. 10:30etik 15:00etara izanen da azoka bisitatzeko aukera.



Udaleko eta enpresetako kideek aurkeztu zuten Txistor Eguna.



28 boluntario

Mendinueta ez dago ziur, baina auzolanean ariko diren arbizuar kopuru horri esker aterako da Txistor Eguna aurrera. Zinegotziak aitortu digunez, "herriko boluntarioek lan asko egiten dute". Antolakuntza lanetan Arbizuko Udalaren aldamenean izan dira Cederna-Garalur, Sakanako Garapen Agentzia eta Aldabide elkarteak.



Argazki zaharrak

Udalak badu bilduma bat eta haietako batzuk aukeratu ditu Txistor Egunean erakusketa prestatzeko. Txuri-beltzeko Arbizu hura gaurkoarekin alderatzeko aukera polita izanen da. Ongi begiratu gero, baita beste makina bat kontuz konturatzeko ere. Oihan Eder dorrearen ondoan egonen da erakusketa.



Izan ere, 17:00etan, IV. Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia ospatuko da Arbizuko plazan. "Ea jendea animatzen den goizaz aparte, arratsaldean gelditzea ere", esan digu zinegotziak. Plazako eszena-tokitik Nafarroako trikitixa eskola gehienak pasako dira: Lekunberri (Leitza, Larraun eta Ultzamako ikasleak biltzen dituen), Goizueta, Lizarra, Tuter, Barañain, Berriozar, Iruñeko Alde Zaharra, Txantrea, Altsasu eta Arbizu. Mendinuetak Patxi Agirrek jaialdiaren antolakuntzan egindako lana eskertu du.

IGANDEA 13

- 10:00 Diana Arbizuko fanfarrearekin.
- 10:30 Azokaren irekiera.
- 11:00 Nafarroako trikitilarien bilkura.
- 11:00 XI. Pintxo lehiaketaren hasiera.
- 12:00 Arbizuko abesbatza, plazan.
- 13:30 XI. Pintxo lehiaketaren eta II. Letrak ahora literatur lehiaketaren sari banaketak.
- 15:00 Azokaren itxiera.
- 17:00 IV. Nafarroako trikitixa eskolen jaialdia.

Pintxo txapelketa

Txistorra osagai nagusi duen pintxo txapelketa ere ez du hutsik egiten aurten Arbizun. Lehiaketara bederatzi proposamen sakandar aurkeztuko dira. Mendinueta aurreko urteetan lehiaketaren bueltan lanean ibili da eta horregatik badaki "izugarriko nibela" dagoela. Pintxo txapelketako 11 edizioetan epaimahaian hutsik egin ez duten bi epaile daude: Javier Diaz, Iruñeko Alhambra jate-

txekoa, eta Fernando Flores, Iruñeko Enekorri jatetxekoa. Haiekin batera epaimahaia osatuko dute Anabel Arrazak, aktore eta kazetari lakuntzarrak, Itziar Inzak, Reyno Gourmet markako komunikazio arduradunak, eta Nerea Caballek, Arbizuko Izar-Ondo jatetxeko arduradunak. Haien dastaketa eta balorazioaren ondoren jakinen da pintxo onenaren txapela eta 300 euroko saria zeinek eskuratzzen duen.

Literatur lehiaketa

Joan den urtetik Txistor Egunak bere literatura sariketa ere badu: Letrak ahora. Arbizuko Udalak gastronomiari buruzko narrazio laburrak eta poesiak sortzeko gonbidapena egiten du. "Literatura eta jan-edanak, sukaldaritza, elikadura eta antzeko gaiak" dituzten sortze lanak saritu nahi dituzte. Mustutze urtean baino lan gutxiago aurkeztu dira aurten lehiaketara: sei. Hala ere, udaltik azaldu digutenez, "halako ekimenei denbora eman behar zaie egonkortzeko eta oihartzuna izateko". Literatur sariketak badu erakargarririk: 100 euroko sariaz aparte, lanak argitaratu egiten ditu udalak. Testuak aurten Maitte Gurrutxagaren irudiz lagunduta egonen dira.

Trikitixa jaialdia

Xapiru trikitixa eskolak sustatuta, Txistor Egunarekin batera Nafarroako Trikitilarien Bilkura egiten da. 11:00etatik aurrera eskusoinu eta pandero doinuak Arbizun barna zabalduko dituzte. Baina doinu berak baliatuko dira Txistor Eguna despeditzeko.



Goizean:

Ardoa eta pintxoak, plazan. Azoka, kale Nagusian. Txerriaren produktuen erakusketa: tripotak, txistorrak, txantxiorrak, ukenduak... Juananeko gaztandegikoek azokako euren postuan gazta egiten dute. Argazki zaharren erakusketa.

ARBIZUKO XI TXISTOR EGUNA
URRIAK 13, IGANDEA

PROGRAMA

Goizean zehar: ardoa eta pintxoak plazan, azoka kale Nagusian eta txerriaren produktuen erakusketa: tripotak eta txantxiorrak, txistorrak, ukenduak... gazta egiten erakusleak dira Nafarroako gazteak baten baten.

10:00 Diana Arbizuko fanfarrearekin
10:30 Azokaren irekiera
11:00 Nafarroako trikitilarien bilkura
11:30 XI. Pintxo Lehiaketaren hasiera
12:00 Trikitixa lehiaketaren bilkura
13:30 Pintxo lehiaketaren eta II. Letrak ahora literatur lehiaketaren sari banaketak
15:00 Azokaren itxiera
17:00 Nafarroako Trikitixa Eskolen Jaialdia

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 411 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak
SALMENTA

Ongi pasa txistor egunean!
Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

FLORES S.L.

Arbizu-hestebeteak Txistor ekologikoa

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

Herri mugimenduak udalaren jarrera salatu du

"Altsasun ditugun baliabideak benetan herritarrondako erabilgarriak izan daitezzen tasen jaitsiera nabaria" eta Foru plazan jolas-parkea egiteko egitasmoa gelditzea eskatu du

ALTSASU

Altsasuko herri mugimenduko kideek udalari "herritar antolatuekin duen jarrera aldatzeko neurriak" hartzea eskatu diote. "Uste dugu udalarekin komunikazio egoki bat eraikitzeke ez dela zuzena edozein gauzarentzako tramiteak, instantziak eta hamaika traba burokratiko gainditu behar izatea". Udalak herri mugimenduari "jarrera zurruna malgutzera" eskatu diote: "ez dezala edozein gauza antolatzenean geroz eta burokrazia gehiago jarri tartean, batez ere udalak trukean egin beharko lituzkeen betebeharrak betetzeke gai ez denean".

Aitortu dutenez, "udalak eta herri mugimenduak interes kontraesankorrak izan dituzte, ikuspuntu politiko desberdinen arteko eztabaida politikoa da azpian dagoena. Uste dugu eztabaida politikoa osasuntsua dela oso, baina egon daitezken desberdintasun politikoak aitzakia tekniko eta legalen atzean ezkutatzea ez da zintzoa". Horregatik, Geroa Bairi eskatu diote "herri mugimenduari izan ditzaketen desberdintasun politikoak era zintzo batean politikoki eztabaidatzeko eta ez erabiltzeko udalaren eskumen teknikoak politikoki bat egiten ez duten horiek desgastatzeko".

Adibideak

Azaldu zuten, 2015era arte "herriko kolektibo, elkarte eta eragile guztiak udalarekin batera antolatzen genuen festetako programazioa eta marko horri programazioa erabakitzeko eskumena aitortzen zitzaion. Hamarnaka kolektibok parte hartzen genuen". Gaineratu dutenez, festen "programazioaren erabaki markoa udalera eramanez, beste eragileon parte hartzea erabat sinbolikoa bilakatu da. Hitz egiteko aukera bai, baina erabaki ahalmenik gabeko espazio



Herri mugimenduko kideak jolas-parkea egonen litzatekeen tokian. UTZITAKOIA

"HAINBESTE DIRU ORDAINTZEAK XUMEAGOAK DIREN ERAGILEEN EKIMENA EZINDU DEZAKE"

zio bilakatu da programaziorako antolaketarako espazioa, marko horren desagertzea eraginez".

Esan dutenez, "herriko baliabideak erabili ahal izateko oztopoak" jartzen ditu udalak. "Geroz eta tasa gehiago ordaintzen ari gara, eta onargarriak diren mugak pasa ditu. Iortia kultur gunea, Gure Etxea, eszena-tokia, frontoiak erabili ahal izateko dirutza ordaindu beharra eta hamaika traba burokratiko gainditu behar izatea". Horren adibide gisa jarri zuten Ospa eguna edo festak antolatzeko 3.500 euro ordaindu behar izan zituztela. Eta gaztigatu zuten, "herriko baliabideak erabiltzeagatik horrenbeste diru ordaindu behar izateak, xumeagoak izan daitezkeen herriko eragile batzuk ekimenak egiteko aukera ezindu dezake, eta hori onartezina dela deritzogu".

Herri mugimendutik azaldu dutenez, udalean "ez dira gai dituzten betebeharrak egoki egiteko". Horren adibide gisa jarri dituzte Altsasuko Gazte Asanbladak izandakoak (frontoia erabiltzeko baimenak eta beste trabak) edo "Haize Berriak bandarekin izan dituen talkak".

Plazako jolas-parkeaz

Foru plazan jolas-parkea jartzeko Geroa Baiko udalaren asmoaren "atzean beste motibazio batzuk daudela. Udalera sartu zen lehenengo urtetik saiatu da festetan herri mugimendua plazatik kanporatzen, festaren erdigunetik banandu herriko beste punta batean zokoratuta uzteko. Parkea egiteko saiakera hori aurrera eramateko aitzakia egokia bilakatu da. Herritar antolaturik gabeko Altsasu hil bat nahi dute eta, horregatik, bota nahi dute herri mugimendua festaren erdigunetik".

Herri mugimenduko kideek "parke horren beharrezkotasuna zalantzan" jarri dute, "herrian egoki zaindu gabeko beste parke batzuk daudenean batez ere". Horregatik, jolas-parke proiektua "gelditzea" eskatu dute.



PM Ruiz, Koldo Aldaz, Floren Beraza, Doris Vicente, Mikel Goldarazena eta JM Feliu.

Euskal Herriko erdigunean hitzordua jarri dute

08:15ean Unanuko plazatik, 08:45ean Senosiaingo goiko askatik eta 09:30ean Irañetako bargako bordatik

SAKANA

Azterketa baten ondoren, Euskal Herriko erdigune geografikoa Andia mendilerroan kokatuta dagoela finkatu zen 2004an. Berrain mendi tontorretik nahiko hurbil, Olibesario sakonune edo sarioian, 1.236 metroko altueran. Eta urtero moduan Euskal Herriko erdigunera mendi martxa egiten da. Antolatzaileek esan dutenez, "euskal lurralde guztien erdigunea izanik, Euskal Herriaren lurraldetasunaren adierazgarri bilakatzen da". Martxak ezaugarri hori izanik, euskal herrialde guztietako jendeak

hartzen du parte martxan, "Euskal Herriaren bihotzetik, euskal lurralde osoari begiratzeko".

Mendizaleak hiru herrietatik abiatuko dira erdigunean 11:00ak aldera elkarteko. Ordu erdi geroago ekitaldia izanen da eta han musika, kantuak, eta ordezkarien hitz-hartzeak izanen dira. Ekitaldia despedituta, Irañetako Basakoetxea bordan egiten den bazkariarekin borobilduko dute.

Iratxo mendi taldeak, Sakana mendizaleak eta Independentistak sareak antolatu dute martxa, Mendi Federazioaren eta Irañetako Udalaren laguntzaz.

Hitzordu mikologikoak Etxarri Aranatzen eta Altsasun

Hartzabal elkarteak eta Etxarri Aranazko mikologia taldeak antolatuta ziza eta landare erakusketa izanen da igandean, 10:00etatik 18:00etara, Etxarri Aranazko plazan. Gainera, Xatero, Derry, Iturri Eder eta Leku Ona tabernek zizekin egindako pintxoak eskainiko dituzte. Bixente Garziandia, Bartze, eta Jose Luis Eseberri omentzeko balioko du erakusketak.

Astelehenetik asteazkenera, berriz, Altsasuko Iortia kultur guneak mikologia jardunaldi-tako hitzaldiak hartuko ditu, 19:30ean (ikus agenda 20. orrian). Horrekin batera, mikologia erakusketa antolatu dute ferietako iganderako, hilaren 20rako.

Guaixeren hemeroteca Etxarriko liburutegian

Guaixek abenduan 25 urte bete ditzuela eta, bere hemeroteca sakandarren esku uztea erabaki du. Horretarako, hemeroteca liburutegiz liburutegi ari da ibarrean barnako bidaia egiten eta hurrengo bi asteetan Etxarri Aranazko Victoriano Huizi udal liburutegian izanen da. Handik pasatzen direnak propio prestatutako stand bat opatuko dute bere, aulki, mahai, photocall eta hemeroteca berarekin. Guaixe hilabetekariaren (1994 eta 2002 urteak) eta Oixe astekariaren (2001 eta 2003 urteak) ale guztiak ikusteko aukera izanen da. Haien bidez garai bateko kontuak gogoratzeko, edo ezagutzeko, aukera izanen da.

FUTBOL PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA

San Miguel - Lagun Artea	2-3
Etxarri Aranatz - Lagunak	3-2

SAILKAPENA

PREFERENTEN 1. MULTZOA

1 San Jorge	9
4 Lakuntzako Lagun Artea	8
7 Etxarri Aranatz	6

HURRENGO JARDUNALDIA

Asteburuan ez da ligako jardunaldirik jokatu.

IMQ KOPA. LARUNBATEAN

12:30 San Jorge - Etxarri (*Sanduzelai*)

Lagun Artea eta Etxarri bikain

Etxarri, Lagunak taldea aurreratu zen, penaltiz, baina atsedenaldirako berdindu zuen Xabatek, eta 2. zatian bigarren gola egin zuen Xabatek. Lagunak taldeak bina berdindu zuen, baina Etxarriren garaipenaren aldeko gola sartu zuen Perkazek. Eta Larragan, San Miguelen kontra garaipen ederra lortu zuen Lagun Artea. San Migel 2 eta 0 aurreratu zen, baina Berastegik eta Zubiriak partida berdindu zuten eta azken minutuan garaipenaren gola sartu zuen Gomisek Lagunendako.

FUTBOL ERREGIONALA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Univ. Navarra - Altsasu	3-1
-------------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1 Universidad de Navarra	9
12 Altsasu	1

HURRENGO JARDUNALDIA

Asteburuan ez da ligako jardunaldirik jokatu.

Altsasu aurreratu zen, baina ezin

Universidad de Navarraren kontra aritu zen Altsasu. Reparazek sartutako golari esker aurreratu egin ziren altsasuarrek, baina OPUSekoek ongi erantzun zuten, partidari buelta eman zioten, eta, azkenean, 3 eta 1 irabazi zuten.

EMAKUMEEN ERREG.

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Univ. Navarra - Altsasu	1-0
-------------------------	-----

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Kirol Sport	13
14 Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

16:30 Altsasu - Zaramonza (*Dantzaleku*)

Altsasuk Zaramonza hartuko du

Zaramonzaren kontra jokoan dauden puntuak irabazi nahi dituzte altsasuarrek.

Artola eta Lasoren arteko lehia hartuko du Altsasuk

PILOTA Lau T'erdiko Txapelketan final-laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldia dago jokoan. Artolak Laso izango du aurkari bihar, larunbatean, Altsasun (18:00, ETB1), eta Ezkurdiak titulua defendatuko du, Bengoetxearen kontra, igandean, Lekunberrin

Lau T'erdiko Pilota Txapelketa final laurdenetan dago. Joanes Bakaikoa aurreko larunbatean txapelketatik kanpo geratu zen, Etxarri Aranatzek Erik Jakaren kontra 22 eta 6 galdu eta gero. Lizartzakoa etxarriarraren gaitetik pasa zen. Horrela, Joseba Ezkurdia, egungo lau t'erdiko txapelketa, da kaiolan dugun ordezkari sakandar bakarra.

Lau T'erdiko geldialdia egingo du asteburu honetan Altsasun. Zehazki, B multzoko final-laurdenetako 1. jardunaldiko partida jokatu dute Artolak eta Lasok bihar, larunbatean, 18:00etan, Burunda Pilotalekuan. Norgehiagoka oso estua espero da, Artola eta Laso txapelketako final-zortzirenetako partidak irabaztetik baitatoz. Materiala asteazkenean aukeratu zuten. Artolak 105 eta 105,6 gramoko pilotak aukeratu zituen eta Lasok, aldiz, arinxea-goak, 104 eta 104,6 gramokoak.

Ezkurdiak Lekunberrin ekingo dio txapelketari, Oinatzen kontra

B multzoko final-laurdenetako ligaxkako beste partidari Joseba Ezkurdia, egungo txapelketa, Oinatzen Bengoetxearen kontra ariko da igandean, Lekunberrin, 17:00etan (ETB1). Atzo aukeratu zuten materiala eta bi pilotarietara adierazi zuten gogotsu daudela



Joseba Ezkurdiak lau t'erdiko txapela defendatuko du. Etzi sartuko da lehian. ASPE

txapelketari ekiteko. Joseba Ezkurdiarendako arerio oso zaila da Bengoetxea, leitzarria aurreko koadroetan bikain mugitzen delako. Eta Bengoetxeak Ezkurdia jo zuen faborito, arbuzuarra egungo txapelketa delako. Beraz, partida oso lehiatua espero da igandean Lekunberrin festetan.

Bestalde, A multzoan, Erik Jakak Victor izango du aurkari ostiralean Azpeitian jokatu den partidari (22:00etan, ETB1), eta astelehenean Jokin Altuna Peio Etxeberriaren kontra ariko da Tolosan (16:30ean).

Altsasun

Bihar, larunbatean, 18:00etan, Burunda pilotalekuan (ETB1)

Altsasuko pilota jaialdia

• **Binaka:** Olaizola II.a-Aranguren / Bakaikoa-Mariezkurrena II.a

• **Lau T'erdian:** Artola / Laso.

*Sarrerak: aurretik interneten (entradasfronton.com) eta egunean bertan, Burundako txarteldegian.

Zabaletaren mastersa

PILOTA Igandean Masters Codereko finala jokatu zuten Altunak eta Zabaletak Iribarriaren eta Rezustaren kontra, Nafarroa Arenan. Final ikusgarrian, bi atzelari onenen arteko lehia apartaz gozatu genuen. Azkenean, Altunak eta Zabaletak irabazi zuten torneo, 19 eta 22, merezita. Etxarrengo atzelariak ikaragarri jokatu zuten.



Resanok ezin izan zuen finaleko txartela lortu

AIZKORA Etxarri jokatu EHko 2. mailako kanporaketan 10.a izan zen dorrobarra

Etxarri Aranatzek Euskal Herriko 2. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa hartu zuen ferietan, igandean. Aritu zen sakandar bakarra Iban Resano Igoa aizkolari dorrobarra izan zen. Lehiatu ziren 12 aizkolariek lan potoloa izan zuten aurretik: 5 pago enbor erdibitu behar izan zituzten: 54 ontzako hiru enbor; 60 ontzako enbor bat eta 72 ontzako enbor bat. Parez pare ibili ziren aizkolariek. Lehendabiziko hirurek lehia oso estua izan zuten, eta, azkenean, Lopez Azpilikueta izan zen azkarrena (15:07), Jon Irazuren (15:29) eta Aratz Mugerzaren (15:53) aurretik. Jose Antonio Etxeberria 4. sailkatu zen (16:41), Eloy Corchero arabarra 5. (17:24) eta Arkaitz Jauregi 6. (17:25). Aipatu sei aizkolari hauek sailkatu ziren Euskal Herriko 2. Mailako final handirako.

Atzean, Oier Kañameres 7. izan zen (17:26), Asier Pellejero 8. (17:36), Julen Larrea 9. (17:46), Xabier Zabaldua 10. (18:09), Iban Resano 11. (18:30) eta Hodei Ezpeleta 12. (18:53).

Finala, Altsasun

Finala Altsasun jokatu da, ferietan, urriaren 19an, 18:00etan, Altsasuko Burunda pilotalekuan.

ELOMENDI TXAPELKETA.

1. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Barasoain - Zaldúa	4-0
--------------------	-----

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain	6
8 Zaldúa	3

HURRENGO JARDUNALDIA

LARUNBATEAN

Apolo - Zaldúa (*Noain*)

Zalduak denboraldiari ekin dio

Abian da Elomendiko Futbol Txapelketa. Bi jardunalditan 3 puntu lortu ditu Zalduak.



Antolakuntzak sari ederrak banatu zituen kategoría ezberdinetako irabazleen artean.

Katarain eta Campos azkarrenak Etxarrin

MENDI LASTERKETAK 44. Mendira Joan-Etorrian 112 korrikalarik hartu zuten parte. Jose Luis Beraza uhartearra eta Erkuden San Martin etxarriarra lehen beteranoak izan ziren eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra, bigarren emakumea izan zen

Etxarriko feriek batera, 44. Mendira Joan-Etorria jokatu zen, Udaberri elkarteak Etxarri Aranazko Udalaren eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako proba. 112 korrikalarik hartu zuten irteera, parte-hartze oso polita, korrika egiteko bikaina zegoen goiz freskoan. Etxarriko plazatik Bargaraino, Harzabaleraino, igotzea eta bueltatzea zuten jokoan, 10 km eta 572 metroko desnibela zuten proban.

Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarrak hasieratik hartu zuen aurrea. Jon Ridruejo gertu izan zuen hasieran, baina jaitsieran tartea atera zuen Euskadiko Selektzio korrikalariak eta bakar-bakarrik iritsi zen helmugara (45:24). "Jaitsieran ongi nioan, baina harri bat jot dut eta maiki iritsi naiz" aipatu zuen helmugan Beñatek. Aurten maratobietan eta distantzia luzeetan dabil Katarain, baina Etxarriko distantzia laburrean ongi moldatu zen eta 5 minutu atera zizkion Zizur Txikiko Jon Ri-

druejori (46:29) Lizarrako Ruben Astizek osatu zuen podiuma (47:53). Laugarrena, eta lehen beteranoa, Jose Luis Beraza uhartearra izan zen (47:56) eta bosgarrena Aritz Munarriz etxarriarra (48:19).

Emakumezkoetan, Igone Campos izan zen garailea (56:36). Urretxuarra distantzia luzeetan ibiltzen da, baina Etxarrin ez zuen areriorik izan. "Disfrutatzen atera naiz. Lehenengoz aritu naiz Etxarrin eta lasterketa asko gustatu zait. Oso azkarra da, ibilbide ederra eta jende asko zegoen animatzen" aipatu zuen. Bigarrena Haizea Ramirez de Alda altsasuarra izan zen (1:00:05), eta hirugarrena, eta lehen beteranoa, Erkuden San Martin etxarriarra (1:02:52).

Txapeldunek maila ona eman zuten, baina ez zuten lortu Juan Mari Garinen (42:50) eta Virginia Perezen (52:18) errekorrik gainditzea. Bukaeran, auzate bikaina izan zuten zain korrikalari guztiek eta sari ematea plazan izan

zen. Lehendabiziko hirurendako sariak izan ziren, baita lehendabiziko beteranoendako eta lehendabiziko hiru etxarriarrendako ere. Horretaz gain, Borda Jate-txetik lehen pasatu zirenek, Igone Camposek eta Sergio Serranok, bi pertsonendako afari bana irabazi zuten.



Korrika egiteko egun elegantea egin zuen igandean.

Sakandarrak

Gizonak

1. Beñat Katarain (Lak)	45:24
4. Jose Luis Beraza (Uhar)	47:56
5. Aritz Munarriz (Etx)	48:19
11. Eukeni Goikoetxea (Alts)	50:49
13. Joseba Caballe (Etx)	51:04
14. Joxeja Maiza (Etx)	51:14
15. Aitor Mozo (Lak)	51:44
16. Alatz Agirre (Arb)	52:25
17. Alberto Razkin (Etx)	52:26
18. Beñat Anda (Etx)	53:24
20. Mikel Satrustegi (Arru)	53:56
23. Mikel Astiz (Ihabar)	54:49
28. Asier Ansa (Alts)	56:07
31. Carlos Mañeru (Etx)	56:30
32. Andoni Gofii (Iruar)	56:33
35. Fran Araña (Arb)	57:29
37. Garat Flores (Etx)	57:55
38. Joseba Galarza (Iturm)	58:04
42. Kepa Gordo (Arb)	59:12
44. Iban Verdugo (Etx)	59:27
47. J. Mariñelarena (Etx)	1:00:42
48. Izai Mauleon (Etx)	1:00:44
49. Asier Larrion (Alts)	1:01:16
51. Iñaki Agirre (Etx)	1:01:20
53. Jose Antonio Salgado (Alts)	1:02:01
56. Javier Beloki (Etx)	1:02:27
58. Iñaki Arkauz (Lak)	1:02:58
59. Jon Igoa (Etx)	1:02:59
62. Iñaki Azkona (Iruar)	1:03:44
63. Jon Zabaleta (Etxarren)	1:03:44
66. Aritz Jaka (Etx)	1:04:06
67. Xabier Etxeberria (Etx)	1:04:17
68. Ruben Cantero (Alts)	1:04:26
73. Miguel Moreno (Etx)	1:05:48
74. Aitor Salinas (Etx)	1:06:04
80. Alberto Mtnez. Lagran (Etx)	1:06:33
89. Fermin Zornoza (Olaz)	1:10:47
90. Jon Garasa (Olaz)	1:10:47
91. Unai Kintana (Bak)	1:11:05
92. Iosu Jaka (Etx)	1:11:05
98. Iñigo Orella (Etx)	1:15:44
99. Patxi Atxa (Etx)	1:17:10

Emakumeak

34. Igone Campos (Zumarraga)	56:36
45. Haizea Ramiren de Alda (Alts)	1:00:05
57. Erkuden San Martin (Etx)	1:02:52
75. Joana Senar (Etx)	1:06:04
78. Leire Estarriaga (Etx)	1:06:20
86. Maria Goikoetxea (Etx)	1:07:41
88. Eneritz Karasatorre (Etx)	1:10:23

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Levante hartuko du gaur

Osasuna Magna Xotak hirugarren garaipena jarraian lortu zuen, Jimbee Cartagenari 3 eta 1 irabazita. Bi taldeak serio hasi ziren. Dani Saldise irurtzundarrak lortu zuen lehen gola, izkinako sake bat errematatu eta gero. 2. zatian Cartagenak bana berdintzea lortu zuen, baina Dani Saldisek bigarren gola sartu zuen, eta Araçak hirugarrena.

Imanol Arregirendako garaipena "justua" izan zen. "Irabazteko moduko partida egin dugu. Bukaerara beraiek baino justuago iritsi gara, beraiek errotatzeko jokalarik gehiago zituaztelako. Guretzat, ordea, partida bakoitza gerra bat izango da denboraldi osoan. Dugun talde justua kontuan hartuta, eta 2 jokalarik lesionatuta, garaipen bakoitzak zapore hobea du" nabarmendu zuen entrenatzaile irurtzundarrak.

Barça da liderra (15 puntu) eta Osasuna Magna 4.a da (9 puntu). Gaur, ostiralean, talde berdeak Levante hartuko du, 20:30ean, Anaitasunan.

SASKIBALOA CBASKek Autonomia Arteko 2. Mailako Ligari ekin dio

Autonomien Arteko 2. Mailako Liga asteburuan hasi zen. Liga horretan Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen dira. Larunbatean, Logroñon jokatu zuen CBASK-Jatormanek CB Sanignacio taldearen kontra, eta 74 eta 52 gailendu zen talde errioxarra. Saillapenean Humiclima da liderra 2 punturakin, eta CBASK-Jatorman 13. puntu batekin. Hurrengo jardunaldian Altsasuko taldeak Larraona A hartuko du, urriaren 27an, 12:00etan, Zelandin.

Bestalde, Nafarroako Seniorren 1. Maila Autonomikoko 2. multzoan dago aurten CBASK-IFUEL taldea. Larunbatean Paderborn Baskets Oberena taldeak 69 eta 54 irabazi zion Altsasuko taldeari ligako lehen jardunaldian. Bihar, larunbatean, 18:00etan, CBASK-IFUEL taldeak Liceo Monjardin taldea hartuko du Zelandin. Eta emakumezkoetan, Nafarroako Kadeteen 2. mailan dabilen CBASK taldeak urriaren 19an ekingo dio ligari.

Bakaiku, mota guztietako katxarroen topaleku

MOTORRA Bihar, larunbata, goizeko 10:00etatik aurrera auto, moto eta bizikleta klasikoak eta mota guztietako katxarroak ikusteko aukera izango da Bakaikun. Sakanan zehar buelta eman eta gero, bazkaltzera bilduko dira

Bakaikuko Bakarrekotxea elkarrekin antolatuta, bihar, larunbata, urriaren 12an, V. Katxarro Eguna ospatuko da Bakaikun. Goizeko 10:00etatik aurrera hasiko da topaketa, baina lehenago, goizeko 9:00etatik aurrera hasiko dira auto klasikoak, garai bateko bizikletak, motorrak, traktoreak, kamioiak eta mota guztietako tramankuluak iristen. Bakaikuko plazan eta inguruetan txukun aparkatu eta garai bateko traste edo katxarro zahar horiek gertutik ikusteko aukera izango dute bertara gerturatzen direnek.

Ibilgailu klasikoaren munduak izugarri erakartzen du eta horren isla dira halako topaketek duten harrera eta ibilgailu eta katxarro zaharrak konpontzen dituztenen kopurua. Interneten, esaterako, ibilgailu klasiko hauen piezaku lortu ahal izateko merkatu zabalak dago, edo, besterik gabe, zaleen topaketarako makina bat web-gune.



Iaz motor zaharrak erakutsi zituen Ignacio Arbizuk.

Bakaikuk, beraz, atzera egiteko aitzakia bikaina emango digu bihar. Adin bat dugunon artean, nork ez ditu gogoratzen garai bateko Seat 600ak, Miniak, Alpinak eta beste? Oroitzapenak freskatzeko edo aspaldikoa eza-

gutzeko aukera izango da. Aurreko urtean, esaterako, Fermin Paularenaren furgoneta edo food-trucka zegoen, Katxarro bitxiaren saria jaso zuena. Eta Ignacio Arbizu iturmendiarrak garai bateko enpaketadora ma-

nuala eraman zuen, 70 urtetik gora izango zuena, eta, horretaz gain, 100 urte inguruko motorra, motor estatikoa, aroztegi batekoa zena. Eta Clasicos San Fermin klubak katxarro gehien eraman zituen klubaren saria jaso zuen.

70 partaide baino gehiago

Bihar askoz gehiago ikusteko aukera izango da. Antolakuntzako Iosu Aiestaranek aipatu digunez, biharko 70 pertsona baino gehiago daude izena emanda. "Denetarik ikusteko aukera izanen da, kamioiak, bizikletak, motor ugari eta ezberdinak, barietate handia, eta 1950. urtetik 1980 urtera bitarteko mota guztietako auto klasikoak. Urtero harribitxi ezberdinak ikusteko aukera dago". Antolakuntzak hiru sari banatuko ditu: katxarro zaharrenari, urrutienetik etorritako katxarroari, eta publikoaren faboritoari.

Ibilbidean aldaketa

Bakaikura doazenak katxarroen artean kuxkuxeatzen gustura ari diren bitartean, antolakuntzak hamaiketako ederra prestatuko die topaketara euren katxarroak

eramango dituzten guztiei. Eguerdia pasata, euren ibilgailu klasikoetan igo eta Sakanan barna buelta txiki bat egingo dute. Orain arte, Urdiaineraino joaten ziren, San Pedrotik Altsasura iristen ziren eta buelta hartu, baina aurtentzako kontrako ibilbidea egingo dute. "Bakaikutik Lakuntzaraino joango gara, handik Arruazura, buelta hartu, eta Arbizura helterakoan Lizarrustirantz egingo dugu, buelta hartu eta Bakaikuraino heltzeko" azaldu digu Aiestaranek. Ondoren, Bakarrekotxea elkartean bazkaltzera bilduko dira. "Momentuz 80 pertsona inguru daude izena emanda" gaineratu du Iosu Aiestaranek.

Velosolex motor baten zozketa

Antolatzailuek Velosolex motor bat zozketatuko dute Katxarro Egunean, 12:00etan, Bakaikun. "Eibarren egiten ziren motor hauek. Motorra aurreko gorpillean dute, eta horregatik ez da karnet berezirik behar gidatzeko. Txartelak salgai daude, 2 eurotan" adierazi digute antolakuntzatik. Aurreko urtean ere Velosolex motorra zozketatu zuten eta olaztiar bat izan zen zorteduna.

Burgosera Mankomunitatearekin eta Barrankako bikerrekin

MOTORRA Urriaren 27an 42 kilometroko ibilbidea antolatu dute Burgosen eta izena ematea zabalik dago

Sakanako Mankomunitateak, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin, urtero BTT edo mendi bizikleta irteera antolatzen du. Aurtengoa urriaren 27an izanen da, eta Burgosen 42 km-ko buelta ederra egitea da asmoa.

Ibilbidearen zailtasuna erdi mailakoa da. Ibilbide lineala egitea proposatzen dute, Sad Hill kanposantutik aterata, hain zuzen ere "El bueno, el feo y el malo" film ezagunaren sekuentzia ezagun batzuk grabatu ziren lekutik, eta zenbait herritatik pasa eta



Barrankakoak irteera batean. BARRANKA

gero, tartean Covarrubias herri polita, Lerman bukatzea. Ibilbidean txoko, etxe eta toki ederrak ezagutzeko parada izanen da Txirrindularitza ibilaldia egin eta gero, Lerman bazkalduko da.

Autobusa urriaren 27an goizeko 6:45ean aterako da, Altsasuko geltokitik. Gau horretan ordu aldaketa da, eta hori kontuan hartu beharko dute ibilbidean parte hartu nahi dutenek.

Izena emateko

Mank-ek eta Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatutako ibilaldian izena ematea zabalik dago Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) edo 636 528 112 telefonoan, urriaren 21era arte. 14 urtetik gorako txirrindulariek eman ahal dute izena. Prezioa: 10 euro.

**Guaixerekin
ZIENTZIA
tabernetan**

19:00etan · Pikuxar taberna · IRURTZUN

Urriak
11
ostirala

Miren Barbería
(biomedikuntza)

Miren Karmele Gomez
(astronomia + stem)

Alaitz Ruiz de Luzuriaga
(polimeroak)



Aitor Alberdi. MARTIN EARLY

Aitor Alberdik irabazi du juniorren Itaroa Challengea

TXIRRINDULARITZA

Puntuatzen zuten 26 lasterketetan arbizarra erregularrena izan da

Junior mailako txirrindularitza denboraldia despeditu da Nafarroan –igandeko Atarrabiako azken lasterketan Jon Gil lakuntzarra hirugarrena izan zen–, eta Itaroa Challengeko sailkapena erabaki da. Challengean denboraldi honetan jokaturako 26 lasterketa puntuatu dira, eta Sakana Group-Aralarren dabilen Aitor Alberdi txirrindulari arbizarra izan da onena (668 puntu), Ermitagaña-Lizarte taldeko Jon Gil lakuntzarraren (522 puntu) eta Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta uhartearren (511 puntu) aurretik. Quesos Albeniz-Burunda taldeko Iker Mintegi altsasuarra 6. sailkatu da (449 puntu) eta bere taldekide Unai Aznar 7. (381 puntu). "Oso denboraldi ona izan da hau, eta Challengea erregularitasunaren saria da. Hortaz, kontentu nago" aipatu digu Alberdik.

Aitor Alberdik bi garaipen lortu ditu aurten, Villatuertan eta Zangozan, eta Altsasun, Galarren, Tafallan eta Dicastillon bigarrena izan zen.

Azanzaren taldea, UCI Pro Team Euskadi Fundazioak 3. mailatik 2. mailara egin du eta 2020. urtean UCI Pro Team taldea izango da. Talde berria urriaren bukaeran aurkeztuko dute.

Lehenengoz txapeldun sakandarra du Urbasak

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsport eskuderiako Garikoitz Flores lakuntzarra lehenengoz Urbasako Igoera irabazi duen pilotu sakandarra (3:20.920) Arkaitz Ordokiri 3 segundo eta Iñaki Irigoieni 5 segundo aterata. Milaka zale bildu ziren proba segitzera

Maider Betelu OLAZTI

Aurreko urteko etenaldiaren ondoren, Sakana Motorsport eskuderiari esker atzera ere motoren orroa entzun ahal izan zen Urbasan. Milaka zale bildu ziren Nafarroako Mendi Txapelketarako puntuagarria zen 38. Urbasako Igoera jarraitzera, eta motorraren festa handia izan zen larunbatekoa.

95 pilotuk hartu zuten parte proban, tartean 10 sakandarrek. Olaztitik Urbasako portu gainera, 5,72 kilometroko eta 288 metroko desnibel positiboko igoera zen Urbasakoa. Ibilbide mitiko horretan, hasierako zatia azkarra da, baina ondoren dator bihurgunez betetako tarte teknikoa, gehienak ferra bihurguneak edo 180 gradukoak, guztira 39 bihurgune gaingitu arte. Eta ibilbide hori hiru aldiz egin behar izan zuten pilotuek, entrenamenduak eta bi txanda. Proba hasi baino lehen, Sakana Motorsportek omenaldia egin nahi izan zion Espainiako Supermotard Txapelketako master mailako txapelduna izan den Fernando Urria pilotu olaztiarrari. Olaztiarra lehena izan zen Urbasako igoera igotzen; hori bai, motorrean.

Entrenamenduetan eta bi txandatan gailendu zen Flores

Eguraldia ona zen baina tarteka euri tanta batzuk erori ziren. Etxeko pilotuetako bat, Garikoitz Flores lakuntzarra (BRC B49), proba irabazteko faboritoetako bat zen. Sakana Motorsport eskuderiako pilotuak ez zuen huts egin eta lasterketako denborarik onena egin zuen (3:20.920 minutu) eta bere lehen Urbasako Igoera irabazi zuen. Probako entrenamenduetan eta bi txandatan lehena izan zen Garikoitz –entrenamenduetan 3:23ko denbora egin zuen, lehen txandan 3:21lekoa eta bigarrenetan 3:20koa– eta, esan bezala, denbora onena bigarren txandan egin zuen. Ur-



Iker Palacios, boxetik ateratzen, irteerara bidera.



Iban Lopez de Goikoetxeak denbora itzela egin zuen (3:49).

basako igoera irabazteaz gain, Nafarroako Mendi Txapelketa irabazi zuen Floresek. Urbasan, 3 segundo aterata zizkion Arkaitz Ordokiri (3:23.010) eta 5 segundo Iñaki Irigoieni (3:25.896).

Aipatzekoa da pilotu sakandarrak lan itzela egin zutela. Flores txapeldunaz gain, Iker Palacios lakuntzarra (BRC 05 Evo) zortzigarrena sailkatu zen (3:31.286) eta Iñigo Zelaia bakaikuarra (Speed Car GT 1000) hamabigarrena (3:40.427). Barketak, for-

mulak eta speed carrak izan ziren proba osatzen azkarrenak, baina aipatzekoa da turismoetan Joseba Iraola (Porsche 911 GT3) laugarrena sailkatu zela (3:26.775), turismo batendako sekulako postua. Bestalde, Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra (Renault 5 GT Turbo) 16. izan zen (3:49.862), F2 mailan bigarrena.

Irteera hartu zuten 95 pilotuetatik 48k ezin izan zuten proba despeditu, matxurak zirela medio edo errepidetik irteerak izan

Sakandarrak

38. Urbasako Igoeran sailkatutako sakandarrak:

Sailkapen absolutua

1. Garikoitz Flores (BRC B49)	3:20.920
8. Iker Palacios (BRC 05 Evo)	3:31.286
12. Iñigo Zelaia (Speed Car GT 1000)	3:40.427
16. Iban Lopez de Goikoetxea (Renault 5 GT Turbo)	3:49.862
19. Urko Berdud (Renault Clio)	3:54.020
27. Eneriz Besga (Citroen Saxo)	4:03.483
30. Mikel Mendinueta (Peugeot 205 Gti)	4:09.255
31. Iker Askargorta (Opel Astra)	4:10.878
43. Ander Gurmindio (Renault Clio)	4:25.207

* Delfin Goikoetxea (Seven) erretiratu egin behar izan zen

zituztelako. Eta tartean istripu bat gertatu zen. Bihurgune batean auto bat bidetik atera zen eta debekatutako eremu batean zegoen argazkilari bat harrapatu zuen. Kolpe fuertea hartu zuen, baina zorionez ez zen garrantziko hausturarik izan. Harrapaketa jasotzen zuen bideoa sare sozialetan barra-barra zabaldu zen.

Segurtasunean ahalegina

Sakana Motorsport eskuderiaren kezka nagusia pilotuen eta ikusleen segurtasuna bermatzea da. Horrekin batera, Urbasa-Andia natur parkea garbi-garbi uztea. Neurri zorrotzat hartu zituzten, baina beti dago arauak betetzen ez duena, guztion kalterako. Nolanahi ere, antolakuntzak egunaren balorazio positiboa egin zuen. "Ez da ezer larririk gertatu, istripuan zauritutako argazkilariak ez baitu arazo larrik, eta alde horretatik kontentu gaude. Bestalde, matxura asko egon dira eta horrek lasterketa geldiarazi du sarritan, baina Igoera, oro har, ongi joan da eta primerako ikuskizunaz gozatzeko aukera izan dute Olaztiarra eta Urbasara gerturatu direnak" aipatu dute Sakana Motorsporteko arduradunek.

Bukaeran, sari ematea izan zen Clinker jatetxearen parean. Halaber, lasterketa sustatzeko laguntza eman zutenen artean zozketa egin zuen antolakuntzak eta 4.903 zenbakia izan da onuraduna.



Garikoitz Flores Espainiako Mendi Txapelketako azken lasterketa prestatzen ari da. UTZITAKOA

Garikoitz Flores: "Lasterketetan jarraitzeko ilusioa dut oraindik"

AUTOMOBILISMOA Garikoitz Flores Aristorenak Urbasako Igoera irabazteagatik pozik dagoela aitortu digu, eta urriaren 19an Alacanteko Ibin jokatu den Espainiako Mendi Txapelketako azken proba prestatzen ari dela aipatu digu

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Garikoitz Floresek (BMC B49) Urbasako Igoera irabazi zuen larunbatean, igoerako 5,72 kilometroak 3 minutu eta 20 segundotan egin eta gero. **Hirugarrena eta bigarrena ere sailkatu izan zara Urbasako Igoerako aurreko edizioetan. Aurten, arantza atera duzu. Urbasan irabaztea zure erronketako bat zen?**

18 urtetatik nabil lasterketetan parte hartzen; beti izan dut gogo hori, eta azkenean iritsi da eguna. Urbasakoa igoera polita da, etxekoa, eta pozik nago.

Larunbatean eguzkia zegoen, baina tarteka ere tanta batzuk erortzen ziren. Gurpilek aukeratzeko orduan eragina izan zuen horrek?

Larunbatean, goialdean hezetasuna zegoen, 2 km inguruko tartean, baina gainontzekoa lehorra. Gauzak horrela, lehorreko gurpilekin atera ginen.

Hasieran, behean, lehorra zegoen zorua; abiadura handiarekin ateratzen zara eta gero kosta egiten da bustia dagoenean mantsotzea, baina moldatu ginen.

Zure barketarekin (BMC B49) zein izan zen Urbasan hartu zenuen abiadurarik handiena?

Nire autoak 192 km-ko abiadura punta izanen zuen. Ibilbidearen erdialdean izaten da hori, ur biltegia pasatuta eta Ur Saltoaren azpira ailegatzen. Hor hartzen dugu abiadurarik gehiena.

Entrenamendua eta bi txandak irabazi zenituen. Beraz, autoak ongi erantzun zizun, ez?

"LASTERKETETAN, ANTOLATZAILEEK DUTE MERITUA; BESTELA, GUK EZINGO GENUKE ARITU"

Orain proba batzuk ari gara egiten kotxearekin. Denboraldi osoan ibili gara autoak direkzioa gaizki zuela eta arazoekin, baina irailean jokatu Espainiako Mendi Igoerako Totanako La Santa igoeratik etorri eta gero, berriro puntuan jarri genuen. Arazo horiengatik aurten Espainiako Mendi Igoerako Txapelketan pixka bat atzean egon gara, baina orain ongi.

Espainiako Mendi Igoerako Txapelketa aipatu duzu. Iaz 2. mailako Espainiako txapelketa izan zinen, eta aurten bigarrena zoaz.

Bai, Espainiako Mendi Txapelketako azken proba Ibin jokatu dugu, Alacanten, urriaren 19an eta 20an. Aurreko lasterketan, Totanan, kolpea izan genuen, proba utzi eta horregatik ezin izan nintzen sailkatu ez puntutu. Momentuz, sailkapen orokorrean 2. mailako bigarren postuan

nago, eta Ibin lehendabiziko 5 postuetan sailkatuz gero, txapelkunordea izango naiz. Dugun aurrekontuarekin, egindakoarekin pozik nago.

Naiz eta norbait pilotu oso ona izan, ez baditu medioak, kotxe ona eta dirua... hor geratzen dira abileziak. Azkenean dena diru kontua da. Lasterketetan aritzeko, autoa puntuan jartzeko, gurpilek eta mantenurako dirutza behar da, lasterketetan izena emateko dirua behar da, baita egonaldiatarako ere. Eta maila altuagoa, gastu handiagoa. Nik nagoen mailari eusten diot laguntza dudalako, eta orduan, hemen geldituko naiz, ezin naiz gora igo.

Urbasako igoeran argi ikusten zen alde hori. Bazeuden kamioiak eta mekanikoak zituzten eskuderiak, baina gehienetan pilotu bakoitzak jartzen zuen puntuan bere autoa. Mikel Goya mekanikari olaztiarra nirekin doa lasterketa guztietara. Hori niretzat sekulako babesa da. Oso lagun ona dut. Gurpilekin ere laguntzen dit... dena. Eta Bango Racing Cars auto fabrikatzaileak eramaten dit kotxea lasterketetara bere kamioian. Hor laguntza badut. **Urbasako Igoera askotan eten behar izan zen, istripuak, matxurak eta beste zirela medio. Zuei eragiten dizue? Urduriago jartzen zarete?**

Bai. Ni lehen, egia esanda, gehiago urduritzen nintzen, baina denborarekin hobe hartzen dut. Izan ere, 100 kotxe parte hartzen, kotxe ezberdinak, denbora ezberdinak... Azkenean lasaitu egiten zara, lasterketaren erritmoa segitu behar duzu eta listo. **Txanda batetik bestera hurrekin jolasten ikusi zintugun. Deskonektatzeko hobea da hori?**

Egia esanda, presio gutxi nuen. Bertako karrera zen, badakizu nola doan... Presioa kendu nuen gainetik eta pixka bat deskonektatzen saiatu nintzen. Izan ere, urduri jartzen bazara, gauzak okerrago ateratzen dira. Baina aitortu behar dut kaskoa jartzen dudanean estutu egiten naizela. Ez dakizu bigarren doan zer egin behar duen. 5 segundo ateratzen badizkizu... Lasterketetan

"ESPAINIAKO MENDI TXAPELKETAN BIGARRENAK GARA; AUTOAREKIN ARAZOAK IZAN DITUGU"

normalean duzun onena ematen duzu beti.

Proban ez duzue besteek egindako denboraren erreferentziarik, ezta? Ez, ez dakizu besteak zer egin duen. Txanda bukaeran denborak ikusten dituzu, baina unean ez. **Sakana Motorsport eskuderiakoa zara, hain zuzen ere Urbasako Igoera antolatu zuen eskuderiakoa. Antolakuntzan aritzea tokatu zaizu?** Ez. Tailerrean eskatu ziguten dirulaguntza eman nuen, baina ezer gutxi gehiago. Eta argi utzi nahi dut: beraiek ez badute Igoera antolatzen, guk ezin dugu laster egin. Egia esan, ez dakit Sakana Motorsportekoek eta lasterketa guztietako antolatzaileek egiten duten lana nola eskertu. Karreretan, antolatzen duenak du meritua. Beraiek ez badute antolatzen guk ezin dugu aritu. **Eta lasterketa bat antolatzeak sekulako lana du...**

Lan asko ez, lan gehiegi, izugarria. Eta askok bere lana uzten dute ere proba antolatu ahal izateko. Aste osoa bueltaka, eta aurretik baimenekin, segurtasun neurriekin, dirua lortzen, paperekin... Karrerak uzten ditudanean ilusio hori daukat, antolakuntzan laguntzearena. Baina gaur egun, tailerreko lana, gero kotxea, lasterketak... niretzat gehiegizko da. **Nola ikusi zenituen beste pilotu sakandarrak?**

Iñigok lehenengo lasterketa zuen, Iker ere hor ibili zen, Ibanek oso denbora ona egin zuen, Mikelek ere bai, Olaztiko beste pare bat ere txukun ibili ziren... Ongi, mugimendu handia dago Sakanan. **Urbasan gora, zaleen oihuak eta animoak entzuten dituzu?**

Ez. Jaisterakoan bai, baina igozterakoan bakoitza bere munduan sartzen da. Zale asko bildu ziren, giro ona zegoen lasterketan.

Orain Ibiko lasterketa prestatzen ibiliko zara Mikel Goyarekin.

Bai, Urbasako igoeran bi gauza puskatu zitzaizkidan. Bilboko motorren prestatzaile batek bi pieza horiek bidaliko dizkit muntatzeko eta, horrela, Ibirako kotxea prest izango dugu.

Eta heldu den urteari begira, zer? Heldu den urterako zein aurrekontu izango dugun ikustea da lehena. Ez dakit Espainiako Mendi Txapelketako lasterketa guztiak egin ahaliko ditudan, baina batzuk bai. Jarraitzeko ilusioa dut oraindik, ea noiz arte (kar, kar...). Bikoteak oraindik aguantatzen du, haurrak txikiak dira... momentuz ahal dut.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ALTSASU Gazte agenda. Billar txapelketa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.



IRURTZUN
Guaixerekin zientzia tabernetan.
Miren Barberia

(biomedikuntza), Miren Karmele Gomez (astronomia eta stem) eta Alaitz Ruiz de Luzuriaga (polimeroak).
19:00etan, Pikuxar tabernan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Un verano en Ibiza gaurkotasunezko filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 12

IRURTZUN Belate-Berute ibilbidea eginen du Iratxoko mendizaleak taldeak.
08:00etan, egoitzaatik.

LAKUNTZA Zabalarte eguna: Ollotik Lakuntzara. Zabalarte mendi taldeak.
07:30etan, plazatik.

ALTSASU Xabiererra 120 km-tako ibilaldia eginen du Barranka errepide txirridula taldeak.
08:00etan, tadearen egoitzaatik.

ETXARRI ARANATZ Mikologia ikastaro teoriko-praktikoa. Irakaslea: Joserra Beloki. Antolatzaileak: Larrañeta Mendi Taldea eta Hartzabalgo Mikologia Taldea.
09:00etatik 11:00etara, Larrañeta elkartearen.

ARBIZU Al otro lado Nuria Viedma idazlearen liburuaren aurkezpena eta liburuaren eskaintza.

Ondoren, Yaiza eta Valentin Velaren ikuskizun berezia.
11:30ean, Eko kanpinean.

ALTSASU Erkudengo Ama Abesbatzaren Amerika kantuan kontzertua.
19:30ean, lortian (ikus 22 or).

IGANDEA 13

UNANU ETA IRAÑETA Euskal Herriko erdigunera martxa.
08:30ean, Unanuko plazatik.
09:30ean, Irañetako bordatik.
11:30ean, ekitaldia.

IRURTZUN Bigarren eskuko azoka.
10:00etatik 14:00etara, plazan.

ETXARRI ARANATZ Zizen eta landareen erakusketa. Hartzabal mikologia taldea.
10:00etatik 18:00etara, plazan.



IRURTZUN (L)Aniztasun festa. Hizkuntza azoka, hizkuntzen inguruko jolasak, euskaldun berriei aitortza, mintzodromoa, haurrentako jolasak eta abar.
11:30etik aurrera, plazan (ikus 2-3 orriak).

ARBIZU Txistor eguna.
11:00etatik aurrera, plazan (ikus 12-13 orriak).

ALTSASU Drag uraren bila Logela multimediaren familiarterako ikuskizuna.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Un verano en Ibiza gaurkotasunezko filma.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU El gordo y el flaco zineforum filmaren emanaldia.
19:40ean, lortia kultur gunean.



IRURTZUN Guaixe 25. urteurrena. Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria. Urriaren 11ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 14

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Mikologia jardunaldiak. Hitzaldia: Zizak arriskuan? Hizlaria: Roberto Fernandez Sasia Gallartako Mikologia elkarte kidea.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 15

ALTSASU Elkar Ekinez. Familia espazioa. Buruhandiak sortzen.
17:00etan, Txioka haur eskolan.

ALTSASU Mikologia jardunaldiak. Hitzaldia: Mikologiara sarrera, gasteromicetoak. Hizlaria: Jose Maria Ausin Altsasuko Mikologia elkarte kidea.

ETXARRI ARANATZ Guaixe 25. urteurrena. Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa ibiltaria. Urriaren 14tik urriaren 25ra arte. Astelehenetik ostiralera 14:30etik 20:00etara.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 16

ALTSASU Literatur solasaldia: Agnes Martin-Lugand idazlearen La gente feliz lee y toma cafe.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Mikologia jardunaldiak. Hitzaldia: Ez ohiko diren zenbait onddo. Hizlaria: Jose Maria Ibarbia Laudioko eta Altsasuko Mikologia elkarteetako kidea.
19:30ean, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 17

ALTSASU Objetivo: Washington D.C. gaurkotasunezko filma.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ARBIZU KoopFabrika. Sakanan ekintzaitza sozial eta kooperatiboa sustatzeko programa.
16:00etatik 20:00etara, Utzaganen.


ZORION AGURRAK



Amaia
Zorionak Amaia, gaur 7 urte!!! Ondo pasa maitia, asko maite zaitugu!!!



June Etxegoien Zelaia
Zorionak bihotza, dagoeneko 7 urte! Zure aitona eta amona. Maite zaitugu!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAERA

Sakanako emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, arratsaldez edo gauez, baita egun solteak ere. Esperientzia frogagarria. 618 855 249

LAN ESKAINTZA

Etxarri Aranazko Udalak Gaztetxokorako begiralea kontratatzeko deialdia zabaldu du: Lanaldi partziala (asteburuetan) izango da eta soldata C mailakoa. Hautapen prozedura curriculum-en balorazioaren bitartez egingo da. Betebeharrak eta oinarriak www.etxarriaranatz.eus web orrian, udal bulegoan eta Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuan kontsulatu daitezke. Izena emateko epea gaur, ostirala, 14:00etan bukatuko da.

LEHIAKETAK

15. KAMERATOIA Lekeition (Euskal Herriko ikusentzunezkoen rallya): Parte hartzeko epea urriaren 23ra arte zabalik <https://irudienea.topagunea.eus/egitasmoak/kameratoia/> webgunean (Lekeition aterpetxean egonaldia eta gosaria doan izena ematen duten lehen 30 lagunentzat). Gaia urriaren 25ean emango da, grabaketak 26an hasi (Lekeition bertan) eta 27an Ikusgarri zine aretoan aurkeztuko dira. Film labur hobere-narentzat 1000 euroko saria, bigarrenarentzat 600 euro eta Publikoaren Saria egongo da ere.

Instagram BOTABA Euskal Esamoldeen Erronkaren 3.edizioa: Gazteentzako lehiaketa aurreten berritasunekin eta egundoko sariekin dator. "Beroketa-fasea" urrian hasiko da nola parte hartu ikasteko. Erronka Aza-

roaren 4tik 25era izanen da. Labayru Fundazioak antolatuta.

Egile berrientzako Iruñeko Udalaren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa: parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Poesia, Narrazioa eta Bertso-paperak modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaitzen da. Informazio gehiago www.iruñakultura.eus helbidean.

OHARRAK

Arakilgo kultur irteera: Bizkaiko Muskiz herriko El Pobal eta La Arboleda meategi eta burdinolak ezagutzeko aukera izanen da hilame 26ko txangoan, 10:00etan abiatuta eta 18:30ean buelta eginez. Interesa dutenek hilaren 22ra arte eman dezakete izena udaletxean edo 948 500 101 telefonora hots eginez. Arakilen erroldatutakoek 25 euro ordaindu beharko dituzte, 12 haurren kasuan eta ibarrean erroldatu ez diren helduek 30 eta 15 haurren kasuan.

Txistor eguneko auzolana: Arbizuko txistor eguna lastailaren 13an izanen da. Arbizuko Udalak gaztigatu du ospakizuna antolatzeko herritarren lana "oso garrantzitsua" dela. Horregatik, egun horretan auzolanean aritu nahi dutenek udaletxean, 948 460 017 telefono zenbakia (bulego ordutegian) edo info@arbizu.eus e-posta helbidearen bidez egin dezakete. Edota zinegotzirekin bati esan da ere.

Bakaikuko Udalaren informazioa WhatsApp bidez jaso nahi duzu? Bandoak, udalbatzen aktak, jarduerak, jakinarazpen eta informazio

orokorra, etab jasotzeko deitu edo bidali mezu bat 622 268 161 zenbakira eta informazioa bidaliko dizugu.

AHT-ko lanetara mendi martxa: Mugitu! Mugimenduak azaroaren 23 eta 24ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzea eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta martxak zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzaxarearen eraikina zaharberritzeko proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortpena egitean zati bat bueltatuko diote.

Sakana Trenaren alde AHTrik Ez plataformakoak asteartero, 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan bandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Iosu Garmendia Garcia

Guai dela urtiat jua ziñen. Oso goixter jua ziñen losu, beño gui familiyen betiko geldittuko die zui eskuzabaltasune eta zuk emandako maitesun guzie.

Eskerrik asko emandako eta akusiteko guziyengatik.

Jasone eta familiye



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskela@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOTZAK

- **Amaiur Rodriguez Lacalle**, irailaren 17an Olaztin
- **Unax Alegre Huarte**, irailaren 28an Ihabarren
- **Gorka Berdud Duran**, urriaren 7an Altsasun

EZKONTZAK

- **David Mutiloa Orkarai eta Leire Aletxa Prat**, urriaren 4an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **German Urriza Garcia**, urriaren 3an Hiriberrin
- **Ageda Lopez de Lacalle Ramirez**, urriaren 7an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA




Iosu Garmendia Garcia

I. urteurrena

Jatorrean jator
Ez zen beste inor
Garen artean sendo dirau
Gurekin iraukor

Lakuntzako kuadrilla



Benigno Mendia Goikoetxea

IV. urteurrena
(Urriaren 10ean)

"Gure bihotzetan zaude"

Zure familia eta lagunak
Urdiain



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:
14,52 euro
948 564 275

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Erkudengo Ama Abesbatzako kideak atzerrira egindako elkartruke batean. ERKUDENGO AMA ABESBATZA

Amerikaren aberastasun musikalaren lagina

Erkudengo Ama Abesbatzak 'Amerika kantuan' kontzertua eskainiko du bihar, urriaren 12a, 19:30ean, Iortia kultur gunean. Amerikako iparraldetik hegoalderako bidai musikatu egongo du Altsasuko abesbatzak, hainbat estilo uztartuz

ALTSASU

Urtero Erkudengo Ama Abesbatzak kontzertua "berezia" eskaintzen du Iortia kultur gunean. Udaberrian egin ohi izan ditu kontzertuak "esklusibo" hauek, baina aurten denbora faltagatik atzeratu egin behar izan dute. Hortaz, udaberriko kontzertua udazkeneko kontzertua bihurtu da eta bihar, urriak 12, larunbata, 19:30ean, *Amerika kantuan* (*America canta*, gaztelaniaz) kontzertua eskainiko du Iortia kultur gunean.

"Gure erreperatorioan beti izan ditugu Amerikako abestiak, bereziki argentinarrenak". Izan ere, Erkudengo Ama Abesbatzak harreman "oso berezia" izan du Argentinarekin, Inma Arroyo abesbatzako zuzendariak gogoratu duenez. 2003 eta 2005 urteetan Argentinara joan zen Altsasuko abesbatza, eta bertan "hainbat koru eta abesti" ezagutzeko aukera izan zuten. Iaz La Platako koruak bisita itzuli zuen. Argentinarekin duten "maitasun"

hori kontuan hartuz, aurtengo abesbatzaren kontzertua Amerikari "eskaintzea" erabaki zuten.

Argentinarekin eta Amerikarekin duten harremanaren ondorioz, Eduardo *Chino* Correa musikagilea ezagutu zuten. Hego Amerikan "eminenzia" bat dela esan du Arroyok eta duela hainbat urte, Altsasun ikastaro bat eskaintzen egon zen, eta abesbatzak ere bere partiturak lantzeko probestu zuen. "Zoritzarrez Correa abenduan hil zen, eta urte honetan egiten dugun emanaldi guztietan bere abesti bat interpretatzen dugu. Amerika kantuan kontzertu hau ere berari eskainiko diogu".

Izenburuak dioen bezala, beraz, *Amerika kantuan* Amerikako

**AMERIKARI ESKAINI
DIO ERKUDENGO AMA
ABESBATZAK
UDAZKENEKO
KONTZERTUA**

iparraldetik hegoaldera egindako musikaren bidezko bidai izanen da. Hortaz, koruko abeslariak Amerikako Estatu Batuetako afroamerikarren izpiritual batekin hasiko dira. Ondoren, Mexikoko abesti bat interpretatu dute, baita Kubako bi abesti eginen dituzte ere, "Kubarekin ere harremana badugulako", eta Chilera eta Brasilera salto egingen dute gero.

Bigarren zatia Argentinako musikari eskainiko diote: tango bat egonen da, oso indigena den Camino del Indio, boleroak... "Folklore argentinarrenan pot-purri nahiko zabala izanen da". Erreperatorioa Txileko Cueva batekin eta Venezuelako abesti batekin amaituko dute. "Herrialde asko sartu ditugu. Askoz gehiago daude, baina Amerika nahiko ongi islatzen da". Kontzertu dibertigarria izanen dela esan dute abesbatzako kideek, eta abestiarekin bat egiten duen jantziak ere eramanen dituzte, "beti errespetuarekin".



BAZTERRETIK

EDURNE LARRAZA MENDILUZE

Guaixeko kastorea – Ongi pasa eskola

Aspaldi ez naiz Sakanan bizi eta ez dakizue zer poza eman zidan zuengandik pixka bat gertuago egoteko eman zidaten aukera honek. Informatikaria ikasketaz eta irakaskuntzan aritua, bi gaiok uztartu ditut nire ikerkuntzan, informatikaren irakaskuntza.

Hemen egingo ditudan ekarpenetan denbora-pasa edo buruhauste simple batzuk planteatuko dizkizuet. Ekarpene batean galdetu eta hurrengoan erantzun. Helburua, Informatika zuengandik pixka bat gertuago senti dezazuen.

Horretarako, Bebras proiektuko ariketak erabiliko ditut. Bebras hitzak kastorea esan nahi du lituanieraz. Proiektuari izen hori eman zioten animalia horren izaera saiatuagatik eta, helburua, nik hona ekarri dudana berbera. Informazio gehiago aurkituko duzue bebras.org-n (ingelesez) eta bebras.ehu.eus/login_eus.php-n (euskaraz).

Goazen ba lehenengo buruhaustearekin: Ongipasa eskolan irakasleek jolastea atsegin dute eta etxera

joan aurretik honako jolas hau proposatu dute: pasabidean 5 ate daude bata bestearen atzetik kokaturik. Denak itxita daude. Ikasleak ilaran jarriko dira eta pasabidetik pasatzen hasiko dira. Atea zabalik aurkitzen badute, atea itxi eta hurrengo atera joango dira. Atea, ordea, itxita aurkitzen badute, ireki, gelan sartu eta atea zabalik utzita bertan itxoian beharko dute irakasleak etxera joan daitezkeela esan arte.

Ikasleak 1etik 35era zenbakituta baldin badaude, zenbatgarrenak joan ahal izango du etxera lehena?

Emaitza garrantzitsua da, baina prozesua da kasu honetan garrantzitsuena. Ongi pentsatu emaitza horretara iristeko eman dituzun urrats guztietan.

Ez kezkatu guzti horren eta informatikaren artean dagoen lotura ikusten ez baduzu, baina gorde zutabetxo hau ongi gordeta, Guaixeko kastorearen hurrengo ekarpenean Informatikarekin duen harremana argituko baitugu.

Udazkenean, antzerki zikloa Irurtzongo kultur etxean

Hiru antzezlan eskainiko dira urrian: 'Rita' euskaraz, 'Esto no me lo esperaba' eta 'Improvisa tio'

IRURTZUN

Etzi, igandea, 19:00etan, hasiko da Irurtzongo antzerki zikloa Rita euskarazko antzezlanarekin. Datorren ostiralean, urriaren 18an, *Esto no me lo esperaba* antzezlan izanen da, eta zikloarekin amaitzeko, urriaren 25ean, ostirala, 20:30ean, *Improvisa tio* izanen da. Zikloaren antzezlan bakoitzaren prezioa 6 eurokoa da.

Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza aktoreak dira Rita antzezlanaren protagonistak. Apaolaza Frank da, unibertsitateko literatura irakaslea eta Garmen-

dia Rita da, ile-apaintzailea den ikasle berria. Bi mundu guztiz desberdinak. Rita etzi, igandea, 19:00etan, izanen da Irurtzongo kultur etxean. Euskarazko emanaldia izanen da.

Mexikoko iraultzan oinarritzen da *Esto no me lo esperaba* urriaren 18an, ostiralean, 20:30ean, Irurtzongo kultur etxean egonen den antzezlan. Irurtzongo antzerki zikloarekin amaitzeko, Yllana konpainia ospetsuaren Improclan taldearen *Improvisa tio* ikuskizuna izanen da, urriaren 25ean, 20:30ean.



Igor Ijurra Iruñeko Orfeoiaren zuzendaria kontzertu batean. UTZITAKOIA

"Ondarra oso maila handiko konpositorea zen"

IGOR IJURRA IRUÑEKO ORFEOIAREN ZUZENDARIA

Lorenzo Ondarra bakaikuarraren musika koralar buruzko hitzaldia eman zuen Igor Ijurra Iruñeko Orfeoiaren zuzendari etxarriarrak

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ Iruñeko Orfeoiaren zuzendaria da Igor Ijurra etxarriarra. Lorenzo Ondarraren lanaren jakitun handia da ere. Hortaz, aurreko astean Lorenzo Ondarraren musika koralararen inguruko hitzaldia eman zuen Iruñean. Izan ere, Iruñeko Orfeoiak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak denboraldiaren hasiera egin zuten atzo, eta konpositore bakaikuarraren Te Deum lanarekin egin zuten. Gaur kontzertua errepikatuko dute ere, 20:00etan, Baluartean. .

Zergatik Lorenzo Ondarra?

Arrazoi asko egon daitezke. Nire aldetik musika koralean hasi nintzenez, 19 urte nituen, Etxarri Aranazko abesbatza zuzentzen, gure euskal konpositore eta gure musika lantzeko hautua hartu

"SAKANA ESKUALDE MUSIKATUA DA, GOI MAILAKO KONPOSITOREAK EMAN DITU"

nuen; bereziki, nafarrak eta sakandarrak. Azken urtetan ohartu dira guk ez badugu gure musika interpretatzen nork egingo du? Hortaz, nik ildo beretik jarraitu dut. Ondarra ez bakarrik nafarra, sakandarra, bakaikuarrak delako, baizik eta oso maila handiko konpositore handia zelako. Baina gizon umila zen, eta berak ez zuen fama bilatzen. **Musikarekin erakusten zuen dena.** Gizon umila zen. Kaputxinoa zen eta beti aipatzen zuen musikari izan aurretik kristaua eta fraide

kaputxinoa zela. Ezagutzen zutenek esaten dute umila eta lotsatia zela, baina talentu handikoa. Zirikatatu behar zitzaion obrak sortzeko. Konfiantza jarri zuen hiru edo lau zuzendarirengan: Jose Luis Ansorena Errenterriako Andra Mari Abesbatzako zuzendaria, Fermin Iriarte Iruñeko San Fermin Abesbatzako eta hirugarrena ni neu izan nintzen. Urte batzuk geroago Etxarri Aranazko Abesbatzaren nengoela obra batzuk eskatu nizkion. Obrak horiek Eresbil euskal konpositoreen artxibora bidaltzen zituen, baina ez zien inori gehiago bidaltzen. 1960 eta 1980 bitarteko hamarkadetan atzerrian egin dako ikastaro abangoardistaren eraginez bere musika puntu berezia dauka, eta orain koruek gauza samurrak nahi dituzte. Zailtasun pittin hori koruendako ez da hain samurra, eta zuzendariak ere beldurtzen dira. Oso musikari errespetatua da, baina ez bere kalitateak eskatzen duen bezain interpretatuta. **Eta zergatik egin bere musika koralararen inguruko hitzaldia?**

Bere ekoizpenaren % 80 musika korala da eta Espainiako Musika Saria jaso zuen 1969. urtean *Dialogos* izeneko obra baten konposizioagatik. Espainia mailan ematen den saririk garrantzitsuenak da. Sakanan baditugu bi konpositore jaso dutenak: Agustin Gonzalez Azilu altsasuarra eta Lorenzo Ondarra. Sakana txikia da, baina gerra handia ematen dugu. Ondarrak musika sinfonikoa eta abangoardista egin nahi zuen. Aipatu nahi nuen bere ekoizpena izugarria dela: musika sakroa edo sakratua latinez eta, bestetik, euskal doinu herrikoien harmonizazioa. Doinu herrikoien korurako moldaketan hoberenarikoa izan da Ondarra eta bere lana baloreari jarri behar da. Jendeak ezagutu dezala, bereziki sakan-darrek: bailaran gauza asko ditugu, baita musika korala ere. Dena ez da musika pop edo rock.

Baina Sakanan abesbatzen tradizioa badago.

Bai. Eta Haize Berriak banda dugu ere, Etxarrin duela 100 urte sortutako banda zegoen eta Olaztin

"GUK EZ BADITUGU GURE MUSIKARIEN LANAK INTERPRETATZEN, NORK EGINGO DU?"

ere bazegoen. Sakana eskualde musikala da. Musika eskolak ere badaude. Baina garaia aldatzen dira eta gaur egun pop musikak sekulako indarra du eta badirudi besterik ez dela existitzen, eta estiloek talka egin behar dutela. Niri rock musika izugarri gustatzen zait, eta ez du zertan musika korala gustatzearekin talkarik egin behar, uztartu daitezke. Hori da gure erronka, nola iritsi.

Zergatik entzun behar du jendeak musika korala?

Musika entzun behar da. Pertsona bati galdetzen diozunean liburu bat zer irudituko zaion iritzia ematen dute. Jendeak ez du literaturari buruz hitz egiteko. Baita antzezlan bati buruz hitz egiteko ere. Baina musikarekin, musika klasikoarekin bereziki, jendeak dio ez dakiela. Baina musika entzun behar da. Beraz, nik animatzen dut jendea. Gainera, autokritikoa naiz eta uste dut gure formatuak ere ez direla horren modernoak edo ez dakit.

Ondarraren lana ezagutarazi nahi duzu, eta Te Deum lanarekin hasi duzue denboraldia. Nolako obra da?

2000. urtean kaputxinoen mendeurrena egin zen eta koruarendako obra bat sortzea eskatu zioten. Berak zer bait handiagoa egin zuen. Musikaste Euskal Musikaren astean mustu zuen urte bat lehenago. Ondoren, Iruñean eta Zaragozan jo zuten ere. Baina ez da inoiz orkestra handi baten denboraldiaren barruan egin. Gainera, oraingoan denboraldiaren hasiera da. Horrek esan nahi du obra toki garrantzitsuan jartzen duela. Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren zuzendari berria den Manuel Hernandez Silva venezuelarrak aintzat hartu du bertako konpositoreen eta musikarien bultzatzaile izan behar dutela. Eta horrek asko pozten nau.

Nola landu duzue lana?

Obra hau egin zenetik ezagutzen dut. Errenterian mustu eta hurrengo urtean Iruñean interpretatuzenean, Etxarriko Abesbatzak kontzertu horretan parte hartu zuen. Aspaldidanik Orfeoiarekin egin nahi nuen. Lorenzo Ondarra txikitatik ezagutzen nuen, bere iloba batekin ezkondu nago eta nire ama Bakaikun ondarratarren aldamenekoa zen. Beraz, musikatik kanpo ere harremana nuen, eta berak duela hamar urte bere obra guztiaren kopia bat eman zidan bazekielako ni zalea nintzela. Bazekien nik bere lanarekin zer bait egingo nuela.

"Kafearen inguruko mundua oso handia da"

Nafarroako AeroPress kafeteraren lehiaketaren irabazlea da Maria Moreta Mayorga arbizuarra. Larunbatean Madrilen Espainiako Aeropress lehiaketan parte hartuko du. "Zientzialariak bezala" aritzen da kafearen formula perfektua lortzeko

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

1 Zer da AeroPress-a?

Kafetera eramangarri bat da; edozein tokitara eramán dezakezu. Xiringa antzeko bat da. Kafea, kafe-errotta, kafe-makina eta ur termo bat eramaten baduzu, edozein tokitan presta dezakezu kafea. Nik normalean hondartzara edo mendira eramaten dut.

2 Nola hasi zinen?

Lanagatik hasi nintzen. Tascade Don Jose tabernan zerbitzaria naiz eta ikastaro bat egiteko eskatu ziguten. *Arte latte* delakoaren ingurukoa zen, kafean marrazkiak egiteko. Klaseetara joaten jarraitu nuen, irakasleari asko galdetzen nion eta kafearen munduan interesa piztu zitzaidan. Irakasleak AeroPress-a erabiltzen erakutsi zidan, eta lehiaketaz hitz egin zidan. Aurten lehenengo aldiz parte hartu dut.

3 Aurten lehenengo aldiz Nafarroako lehiaketan parte hartu, eta irabazi egin duzu.

Erkidego guztietan egiten dira lehiaketak, eta larunbatean Espainiako finala izango da. Erkidego bakoitzetik bat eta hiru finalistak artean goaz. Adibidez,



Maria Moreta Mayorga Nafarroako AeroPress lehiaketaren irabazlea. UTZITAKOIA

Nafarroatik bi joango gara. Ni lehiaketara aurkeztu nintzen kafe lehiaketa bat nolakoa zen ikusteko eta jendea ezagutzeko.

4 Nolakoa da lehiaketa? Zer egin behar duzue?

8 minututan kafe bat prestatu behar dugu: kafea ehotu, ura berotu eta gero paperezko filtroa erabilia kafea egin. Aurretik 250 gramo kafe emango digute horrekin probak egiteko. Orduan, aurretik probak egiten dituzu

errezeta hoberekin asmatu arte. Egunetan etxean praktikatut nuen: uraren temperatura, ehotzeko moduak... Azkenean, gehien gustatu zitzaidana aurkeztu nuen. Lehiaketa arratsaldean izango da eta goizean kafearen inguruko jardunaldiak egingo ditugu.

5 Zer behar duzu AeroPress-a erabiltzeko?

Ekipamendua da AeroPress-a, kafe-errotta eta ura. Gero errezeta bilatzen ari zarenean balantza eta termometroa. Izan ere, uraren temperatura eta kafearen ehotzeko modua kontuan izan behar dira.

6 Zein da kafe hoberekin AeroPress-ean egiteko?

Oinarrian bi kafe mota daude: Arabico-a eta Robusto-a. Bi horien barruan sailkapenak egiteko aldagai asko daude: ekoizten den zonaldearen arabera, jasotze prozesuaren arabera, garbitze prozesuarena... AeroPress-erako oso txigortuta ez dagoen bat aukeratu nuke. Etiopiako kalitate oso onak dira, eta Etiopiako zonaldearen arabera zailagoa da temperatura eta zapora hoberekin bilatzea. Gero, ura 80 edo 90 gradutara berotu eta 23 eta 25 gramo bitarteko kafea bota. Ura kantitate ere kontuan hartu behar da.

7 Beraz, kafeaz ulertzen duzu.

Ikasketa prozesuan nago. Mundu handi bat da.

8 Zenbat denbora eskaintzen diozu?

Orain finala gertu dagoela egunean bi ordu eskaintzen dizkiot. Irakaslearekin sortzen aritu naiz, kafe desberdinak probatzen.

Urriaren 3an iritsi ziztaigun finalaren kafea, eta horrekin lanean aritu gara. Etiopiakoa da, arinki txigortuta eta mandarina zaporea du. Jendea irarora egiten zaio kafe batek mandarina zaporea izatea. Ahosabaiaren egonkortasuna bilatu behar dugu. Kafearen tonu goxoa eta garraztasuna ikusi behar da ere.

9 Zaila da?

Ez. Zientzialari batek probak egiten dituen bezala da. Ateratzen dena apuntatzen duzu, erabilitako tenperaturak, kafe-errotaren motorraren abiadura... Kafea asko gustatu behar zaizu egiten duzunean probatu behar duzulako. Orduan, ongi atera zaizuna desberdintzen jakin behar duzu, gaizki atera dena... Gustu ona izan behar duzu ere, zapora guztiak desberdintzeko. Nire oraindik garatzeko prozesuan dago, oraindik badira aurkitzen ez ditudan zaporeak.

10 Espektatibak?

Espero dut bi buelta behintzat pasatzea. Irabaztea ez dut uste, badakidalako oso kafe ona egin behar dela. Dagoeneko errezeta prest dut, bertan ez dut probarik egin behar. Hortaz, zortea baino ez dut behar.

11 Zertan bereizten da AeroPress-ean egindako kafea?

Nik gomendatzen diot kafe amerikarra gustatzen zaion jendea oso antzekoa delako. Urarekin bakarrik egindako kafea da. Hala ere, ez dut gomendatzen supermerkatuetan saltzen duten kafea erabiltzea, espezializatutako kafea izan behar du. Azken finean, kafea ongi tratatzen eta prestatzen dute, eta nabaritzen da.

**HEMEN DA!
SAKANAKO GIDA 2020**

Iragarri nahi izanez gero edo datuak berri nahi izanez gero jarri harremanetan **publi@guaixe.eus**
948 564 275

ZURE NEGOZIORAKO LEIHOA